

Hizkuntza clusterra **industria da, ez kulturgintza**

Arrantza

Sektorearen
iraupena
antxoaren
biziraupenaren
esku

Judas Arrieta:

«Frustranteena
da, nik nire
obrak erosteko
beste ditu ez
izatea»

Judutarren kolonizazioa

Nasser Ghawi
kanpin-dendan
bizi da etxetik
bota zutenetik

Asun Garikano:

«Estereotipoak
utzi eta
AEBetako
euskaldunetz
irudi zehatzagoa
egitea komeni
da»



Miguel Sanchez-Ostiz

Munduko “beste horiei”
ahotsa eman nahi dien idazlea



- “Entzuteko bidaiatzen dut; niri harriek bost axola, bidaiatzea paisaiak ikusteko fribolitatea iruditzen zait”
- “Errumanian, bizirik jarraitzeko, jendeak norbait salatu behar zuen, baita familia barrukoa bazen ere, nola ez dut hori literaturara eramango?”
- “Nekatuta nago gure historiarekin eta irtenbiderik gabeko kalezulo honekin, asper eginda, eta beste istorio batzuekin topo egin dut”

Elkarrizketa: Alberto Barandiaran

- 4 Deabruaren abokatua: Jon Mantxi.**
Aritz Galarra.

Pertsonaia

- 10 Judas Arrieta: "Artista naizen galdetzen didatenean ludopata naizela erantzuten dut".**
Sustrai Colina.

Iritziak

- 18 Ttakun (h)errenka. Ahari itsua.** Ana Urkiza.
19 Gora Pro Nobis. Asisko Urmeneta.
20 Gure komunikabideen inguruan.
Xabier Etxaniz Erle.
Das weisse Band. Juan Ramon Makuso.
21 Gazte (g)eroaz. Ainhoa Larrañaga.
Frankismoaren. Joxemari Ostolaza.
22 Bertso berriak. Bertso Egunerako
jarriak. Aitor Sarriegi.

Erdiko kaiera

- 23 Asun Garikano: "Nortasunari eusteko euskal-amerikarren ahaleginak ez ditugu aintzat hartzen".** Miel A. Elustondo.
28 Luther Blisset-en Q. Nobela historikoz moztortutako iraultza.
Gorka Bereziartua.
29 Salda balego! Joxerra Garzia.
30 Liburuak. Saioa Ruiz Gonzalez.
31 Diskoak. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak/Abarrak. Jon Torner.
34 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
36 Osasuna. Jabier Agirre.
37 Landareak. Jakoba Errekondo.
38 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.



Asun Garikano.

Termometroa

- 46 Bero-beroan.** Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. CIAk gudu berriak eulitzarretatik tiroka irabazi nahi ditu. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Anti-adina.** Garbine Ubeda Goikoetxea.

5 | Hizkuntzaren industria | Garbine Ubeda

Globalizazioak, harekin dakarren mugikortasunaren eta eleaniztasunaren ondorioz, sektore ekonomiko garrantzitsuenen parera goratu du hizkuntzaren tratamendua. Oraindik atomizaturik eta zenbaitetan gutxietsita ageri den sektore hori artikulatu eta munduan lehiakor bihurtuko duen plana abian du Langune elkarteak.



15 | Auzo palestinarren kolonizazioa | Alberto Pradilla

44 | Ipar Baiona, 30 hizkuntzen abaraska | Kristina Encinar

39 | Antxoa, berriz | Urko Apaolaza, Daniel Udalaiz

Bost urte eta gero, Hego Euskal Herriko arrantzaleak berriz atera ahal izango dira antxoa harrapatzera. Horretarako bete beharko dituzten baldintzak aztertu ditugu, eta Iñaki Zabaleta Bizkaiko Kofradietako presidentearekin ere hitz egin dugu.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetza: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea.

KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua		



“Segituan esan zidaten estilo horrekin ez nindoala inora!”

Jon Mantxi I (m)

“Ia dena” kaleratu duen komikigilea.
Eta musikaria. Artista orobat.

ARITZ GALARRAGA
Argazkia: Iñigo Azkona

Hara, *Paint*-a komikigintzara ekarri zuen morroia!

Nahita izan zen hori: erreminta baldar bat erabiltzea, emaitza ere baldarra izan zedin. Lan batzuetan hainbeste itzal eta hainbeste photoshop efektu ikusten dira, eta gehienetan alferrik...

Orain esango didazu teknika bigarren mailako kontua dela.

Teknikak helburuei lotuta joan behar du. Baina badirudi badaudela gauzak ondo eta gaizki egiteko estandar batzuk: segituan esan zidaten estilo horrekin ez nindoala inora!

Potroak behar dira, halaber, polizia autonomikoak pitilinak astintzen marrazteko...

Hori dena Bilboko Udalak atera zuen kartel batetik zetorren. Jendeak kalean pixa egin ez zezan “*Orina con moderación, es tu responsabilidad*” (Neurrian pixa egin, zure erantzukizuna da) zioen kartelak. Hori ateratzeko bai behar direla potroak!

Onena, hala ere, Juanito Oartzabali moztutako behatzak espedizio batera bidali zenituenekoa.

Ez nituen nik bidali, beren kabuz joan ziren! Esan didate txiste batzuk oso beltzak zirela, baina bere testuinguruan ulertu behar dira. Txisteak orokorrak dira, ez pertsona konkreteiei buruzkoak.

Umores absurdua egiten duzula diote; gogorre-gia litzateke piperrik ulertzen ez zaizula esatea.

Surrealista ere esan didate, baina ez da hala: oso errealistak dira. Nire komiki gehienak errealtatetik hartuak dira.

Artista ere bazaitugu: gogoan dut sari bat eman zizutela behin, beste lehiakideen lanak kopiatzeagatik.

Bai, oso lan postmodernoa. Azkenaldian proiektu asko gelditu zaizkit egin gabe epaimahaien edota erakusketa antolatzaileen filtro hori pasa ez dutelako.

Gora Japon musika taldean aritzen zara orain, zarata egiten.

Beti ibili naiz musikan. Bateria eta gitarran oinarrituriko rock bikotea garelako esan daiteke.

Barka “zarata” hitza erabiltzeagatik, free-rock-jazza esan nahi nuen...

A, etiketak... Kontzertuen ondoren hurbiltzen zaigun jendeak beti esaten digu: honen antza daukazue edo beste honena. Gordetzen joan gara eta jada 50etik gora influentzia ditugu!

Inoiz banda banantzen bada, erraz dituzue izendapen berriak: Gora Japon (m) eta Gora Japon (pm). Ba nahi gabe asmatu duzu: Gora Japon (mantxi) eta Gora Japon (petralanda, myriam). Hala da bateria-jolearen izena.

Komikigile, artista, musikari... Aitonak esaten zidan: “Denetik pixkat, denetan gaizki”.

Kar, kar, ziur arrazoi duela, baina zerbait egin behar ez aspertzeko! Oraingoz snowboardean ez naiz hasi eta... ■

• ASTERKO GAIA •

Hizkuntza clusterra

Industrialian erronka jotzeko prest

Globalizazioak, harekin dakarren mugikortasunaren eta eleaniztasunaren ondorioz, sektore ekonomiko garrantzitsuenen parera goratu du hizkuntzen tratamendua. Oraindik atomizatuta eta zenbaitetan gutxietsita ageri den alor hori egituratu eta munduan lehiakor bihurtuko duen plana abian du Langune elkarteak.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



Itzulpengintza	Irakaskuntza	Edukiak
- Giza itzulpengintza - Software lokalizazioa - Interpretazioa - Bikoizketa	- Hizkuntzen irakaskuntza - Irakaskuntza arautua - Master eta doktoregoak	- Terminologia eta lexikografia - Informazioaren kudeaketa - Edukien industria
 - Itzulpen automatikoa - Itzulpengintzan laguntzeko tresnak	 - E-learning sistemak - Ikasys	 - Dokumentu eleanitzen prozesamendua - Idazteko tresnak (zuzentzaileak...) - Ezagutzaren kudeaketa (Bilatzaileak...)
- Hizketa-teknologia (ahotsaren ezagutza, hizketaren biometrika, ahotsaren sintesia) - Oinarrizko baliabide eta tresnak: corpusak, lexikoak, gramatika konputazionala... - Testu teknologikoak (<i>Natural Language Processing</i>)		
Hizkuntza teknologiak		

Josu Waliño

Elhuyar Fundazioa,
Langune elkarteko
presidentea



DANI BLANCO

HIZKUNTZEN erabilerarako teknologiei bagagozkio, urrats handiak eman dira azken urteotan. Datozenetan, are ikusgarriagoak izango dira lorpenak. Nagusien neurri zabalaz ari zaigun paisaje berri honetan, boteretsu horien artean inork izango al du bazterreko hizkuntzekiko –adibidez, euskarekiko– interesik? Hala ez balitz, bazterreko hiztun horiek –adibidez, euskaldunok–, izango al dute euren txikitasunean baliabiderik eta ahalmen finantzarioak tresneria hori euren kontura heltzeko?

Estoniarrek, gure kasu bertsuan jarrita, argi dituzte bi galderaon erantzunak: ez eta

ez. Arlote xamar ez gelditzeko modu bakarra, zezenari adarretatik heltzea dela erabaki zuten haiek. Hau da, industria horretan buru-belarri sartu, ikasi, hornitu, elkartu, konpetitu eta, besteen pare, dirua irabaztea dela gakoa. Horretara helduta, sektore horretan erdietsitako jakintzak eta irabaziek urratuko diote estonierari, bestela egingo ez lukeen bidea.

Horra hor hizkuntzen industria egituratzeko arrazoiak; bat, jardun desberdinekoak izanagatik ere, hizkuntzaren alorrean diharduten enpresak (euskarari lotuak izan edo ez) batera etortzeko funts sendo bat.

«Guk argi dugu ez garela kulturgintzan ari»

“BETIKO adibidea, Panda Software Jaurlaritzara joaten bada, Industriara bidaltzen dute eta ez Kulturara, haiek saltzen dutena softwarea delako. Gu joaten bagara, Kulturara bidaltzen gaituzte zuzenean, geurea softwarea izanda ere, euskaraz delako. Ez da jarrera logikoa. Guk argi dugu ez garela kulturgintzan ari, industrian ari garela. Azken urteotan, dena den, behin eta berriz errepikatu dugun mezu horrek oihartzuna izan duela dirudi.

Gauzak horrela, zer egiten du euskara itzultzaile batek ingelesaren edo alemanaren irakaskuntzan diharduen batekin, bikoizketa estudioetan lan egiten duen beste batekin edota zentro teknologiko bateko I+G departamentuko informatikari puntakoenarekin? Honi guztiari sektore forma ematea da denetan zailena, denok saretuko gaituen sentsazio hori lortzea, antzeko merkatuan eta *know-how* berarekin ari garela ulertzea”.

Ez da, ordea, bakarra. Elhuyar Fundazioak, esate batera, aspaldidanik du bere jardueraren industrian kokatzeko diskurtsoa. Enpresetako euskara-planak aurrera ateratzean, hizkuntza nahiz hezkuntza softwarea garatzean, hiztegi espezializatuak argitaratzean edota zientzia eta teknologiaren dibulgazioan ari direnean, inoiz baino gehiago, industria sektorean ari direla egiten dute aldarri. Alegia, ez direla kulturetargintzan ari.

Gipuzkoa Berritzen-Innobasqueren eskutik

Andoni Sagarna Elkar-eko I+G departamentuko buru eta Languneko bozeramaileak azaldu digunez, lehen haziak orain urteak bota ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia eta Teknologia planean gai hau garatzeko lerro batzuk sartzea lortu zenean. Garapenik ezagutuko ez zuen arlo bakarria izan zen, ordea.

Orain dela urte eta erdi, eta Elhuyarren ekimenez bereziki, Gipuzkoako Diputazioan jo zuten atea. Planteamendu zehatza zeukaten eskuetan. Aspaldian zerabilten diskurtsoak oinarriarik ba ote zuen argitzeko laguntza eskatu nahi zuten, eta administrazioaren inplikazioa, hizkuntzaren tratamenduari lotutako masa kritikoa, fakturazioa, lanpostu kopurua zenbatesteko. Prospektiba egitearen garrantziaz ere mintzatu ziren. Neurri egoikiak hartuta, sektoreak 10-15 urte barru lor lezakeenaz.

Hartu zituen politikariak, Berrikuntzako zuzendari Iñaki Ibarak, sektoreko enpresetako kideak biltzea, lan taldea osatzea eta maila honetako erronka jotzeko heldutasunik ba ote dagoen neurtzea proposatu zien. Azpiegitura (Gipuzkoa Berritzen-Innobasque) eta aholkularitza (LKS eta Prospektiker-en zerbitzua), haren kontu. Hazia lur hobean erori, beraz.

Geroztik burututako dozena bat bilerak eta sektorearen azterketak erakutsi duen panorama itxaropentsuaren emaitza da Langune elkarte sortu berria (ikus ARGIA 2217

Ritxi Lizartza

Mara-mara, hizkuntza zerbitzuak, Langune elkarteak diruzaina



ZALDI ERO

«Enpresek bakarka garatu ezin dituzten proiektuei heldu nahi diegu»

“SORTU BERRIA den elkarte honen zuzendaritza osatu genuenean, azpi-sektore guztiak bildu nahi izan genituen bere baitan: irakaskuntza, unibertsitatea, euskara planak, arlo teknologikoa, itzulpengintza...”

Laster batean hizkuntzen sektorean eta teknologian aditua den norbait kontratatuko du elkarteak. Hark, Gipuzkoa Berritze-

nek eman digun babesaren ordeko gisa nolabait, koordinatu egin beharko gaitu, erakunde publikoen laguntzak bideratu, zuzendaritza taldeari lana arindu. Apirilerako plan estrategikoa aurkeztu beharko dugu Eusko Jaurlaritzan. Horren onarpena ezinbesteko pausoa da administrazioak aintzat har gaitzan. Ondoren, eta pre-cluster estatusa lortuta, zuzendaritza berritzeko hauteskundeak egingo dira.

Clusterraren bidez, artikulatu egin nahi dugu sektorea, eta enpresek bakarka garatu ezin dituzten proiektuei heltzeko modua bilatu, Kanadan egin den bidea egin eta Europan erreferente bihurtu”.

zenbakia). Haren xedea, gaurko merkatu txiki eta atomizatua, gestio ximple eta anbizio apalekoa, neurri batean diru-laguntzen menpekoea den hori, eta beronen baitan jarduten duten enpresa, elkarte nahiz erakundeak ardatz berera erakartzea. Hiru urtetik gora luzatuko den prozesu malkartsuaren ostean, eta oraindik urrun dagoen bultzada administratiboa lortuta, hizkuntzen alorrak cluster



«Ezin gara hegan hasi geurea sektore estrategikotzat hartzen ez bada»

“BALDINTZA objektiborik ez da izan orain arte, baina aurrerantzean hazkunde handia ikusten da Europan. 2015ean, gutxienez bikoiztu egingo dira hizkuntzaren industrian mugituko diren zifrak. Guk zopa asko jan beharko dugu hor goilara sartzen hasteko, baina lanak ondo eginda, posible dela irizten diogu. Abagune azterketak egin behar ditugu, egoera behar bezala mapeatu, inkesta moduko bidez gurea ongi ezagutu. Baina beste alde batetik, ezin gara hegan hasi gurea sektorea estrategikotzat hartzen ez bada. Erakundeen eta administrazioen onarpena, babesa eta bultzada behar ditugu.

Sinergiak aprobetxatzen ikastea da une honetan erronka nagusia. Emaitzak ikusten hasi aurretik, denok elkarrekin ibiltzen ikasi beharra daukagu”.

«Ezinbestekoa da interes komertzial zuzenik ez duten elkarteek ekarpena»

“ELKARTE bezala ez dugu esperientziarik honelako prozesuetan, eta kosta egin zaigu gure burua kokatzea gehienbat enpresen mundutik datorren ekimen honetan, baina orain arteko lana oso interesgarria eta aberasgarria gertatu zaigu. Batetik gure merkatua ezagutzeko, eta bestetik, itzultzaileon ahotsa itzulpen-enpresez gaindi entzunarazteko. Baita gure jardunarekin lotura zuzena duten zenbait eragilerekiko harremana errazten duelako ere.

Langune abiatu besterik ez da egin oraindik, baina pentsatzekoa da hainbat eztabaida, proposamen eta erabaki hartuko direla eta ezinbestekoa iruditzen zaigu gurea bezalako elkarte baten ekarpena, interes komertzial zuzenik ez baitu”.

DANI BLANCO



Andoni Sagarna

Plazagunea,
Elkar-eko I+G,
Langune
elkarteko
bozeramailea

ZALDI ERO



Bego Montorio

EIZIE, ItzulBaita

estatusa lor dezan. Proiektuak, esan gabe doa, Gipuzkoako mugetatik harago, gutxienez EAE hartu nahiko luke bere baitan.

Zer da clusterra?

Lurraldetasunari lotutako clusterraren kontzeptua Harvard Unibertsitateko Michael Porter profesoreak garatu zuen, eta Jon Azua Eusko Jaurlaritzako kontseilari izan zen garaian Euskal Herriratu zen. Geroztikakoak ditugu energia, papera, ezagutza, automozioa, Bilboko portuko jarduna edota aeronautika egituratzen dituzten clusterrak. Lehenagotik, erreminta makina edo elektronika alorrak batzen dituztenak besterik ez ziren ezagutzen.

Porterren definizioari jarraiki, elkarri lotuta edo interkonektatuta dauden enpresa eta elkarteek osatzen dute clusterra. Geografikoki gertu daude eta industria sektore bertuan aritzen dira lanean. Batzen dituen, ezaugarri komun eta osagarri multzoa izan ohi da.

Bertikalegi izatea leporatu ahal genioke cluster egiturari, sektoreari berari begira aritzea. Eta hizkuntzen industria, ezer baldin bada, zeharkakoa da, sektore guztiak ukitzen dituen

Clusterretan sortzen den aberastasuna –Porterri jarraiki, beti ere– lurraldeko batez bestekoaren gainetik dago eta bere produkzioaren ehuneko handi bat esportatu egiten da. Neurri eta mota guztietako enpresak aurkitzen dira cluster bakoitzaren baitan: osagai, makinaria edota zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, hornitzaile espezializatu eta fabrikatzaileak, finantza erakundeak, gobernu instituzioak, heziketa edota ikerketa zentroak...

Abantaila nagusien artean aipagarri, kanpoko merkatu zabalean lehiatzeko irekitzen duen ateka. Adibide zehatzagoak jarrita, demagun itzulpengintzan, elkartzeak Madril eta Bartzelonako enpresa handiek hemengo enpresei egiten dieten konpetentzia saihe-





Hizkuntza aniztasunaren interpretazio biblikoa ilustratzen duen obra: *Babelgo Dorre Handia*, Peter Brueghel Zaharra.

ten lagunduko luke. Eman diezaiozun buelta: elkartzeak Madrilera eta Bartzelonara joan eta handienei konpetentzia egitea ahalbidetuko lieke hemengo enpresei.

Baina cluster delakoak ez ditu denak bere alde. Besteak beste, bertikalegi izatea leporatu ahal genioke egitura mota honi, sektoreari berari begira aritzea. Eta hizkuntzaren industria, ezer baldin bada, zeharkakoa da, industria sektore guztiak, baita tradizionalek ere, ezinbestean ukitzen dituenak. Batik bat globalizazio garaiotan, bertako enpresak nazioartera jauzi egin dutenean, gailentzen ari diren merkatuetan inbertitzen, kokatzen edo bezeroak bilatzen hasi direnean. Eta zer esanik ez, ingelesak nagusitasuna galdu ez badu ere, tokian tokiko hizkuntzei gero eta aitortza handiagoa egiten zaiela kontuan hartzen bada.

Andoni Sagarnak dioen bezala, “martxa hartzea da kontua; Administrazioak sektore estrategikotzat jo dezan, apirilerako aurkeztu behar den plana bideratzea eta pre-cluster estatusa lortzea. Horren aplikazioak eta datozen hiru urteetan urratsez urrats egiten diren deskubrimenduek erakutsiko digute azkenean cluster bihurtuko garen ala beste mota bateko egitura hartuko dugun. Aholkulariek eta gainerako clusterretakoek aipatu izan diguten bezala, batzuetan hobe da gauzak hain garbi ez edukitzea”. ■

DANI BLANCO



Josu Landa
Ametzagaiña I+G

«Ikusgarritasuna lortu behar dugu, Euskal Herrian eta munduan»

“EUSKAL HERRIAK, bere egoera sozio-linguistiko bereziagatik, oso zertzelada interesgarriak eskaintzen ditu. Ikerketaz eta berrikuntzaz gain, hizkuntzen industriak sortzen duen lanpostu kopurua ere normala litzatekeenetik oso goitik dugu. Hainbat arlotan Euskal Herria mundu mailako erreferentzia bihurtzea ekar dezake horrek, Quebec-en edo Katalunian gertatzen den bezala. Ez da kasualitatea neuro-linguistikari sortu berri den zentro teknologikoa Donostian kokatu izana. Benetan sinesten dut guk ere badugula, gure neurrian, horretarako aski energia eta kemen, badugula zer eskainia eta zer garatua. Aurrerapauso horretarako behar den motorea izan daiteke Langune. Ikusgarritasuna lortu behar dugu, bai Euskal Herrian eta bai munduan”.

«Lankidetzak egoera berrietara egokitzen laguntzen digu»

“Lacunzan aspalditik dugu sektore bereko enpresekin, baita lehiakide zuzenekin,

lan egiteko esperientzia. Urte hauetan guztietan, irabazteko eta ikasteko asko dugula erakutsi digu jardun honek. Lankidetzak gestioa, zerbitzua, merkatuaren nahiz bezeroen ezagutza eta profesionaltasuna hobetzeko bidea eskaintzen

digu denoi. Etengabe aldatzen ari diren beharretara egokitzen laguntzen digu.

Enpresetan, baldin eta estrategiak eta helburuak lortu nahi badira, ezinbestekoa da hizkuntzen gestio eraginkorra. Internazionalizatzen ez badira ahitu egingo dira, eta hizkuntzak behar bezala gestionatzen ez badituzte, asko kostako zaie internazionalizatzea. Horrek, bistan da, gure merkatuaren hazkuntza dakar”.

EUSKONEWS & MEDIA



Javier Lacunza

Lacunza
hizkuntza
akademia

Judas Arrieta

«Artista naizen galdetzen didatenean ludopata naizela erantzuten dut»

“Pekindik natorren artista bat naiz ni...”

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Nolakoa da zure txikitako grabatua?

Gure aita oso komikizalea zen, berak koa-
dernatutako komiki zahar mordoa zeukan.
Hola erantsi zidan marrazteko grina. Egiten
nuenaz arrastorik ez banuen ere, marraztea
eta komikiak egitea baizik ez nuen buruan.
Hori bai, ez zitzaidan argazkiak kopiatzea
gustatzen, sortzea nuen gustuko. Gogoan
dut idazten ere marrazkien bidez ikasi
genuela, Superman marraztu, eta azpian
“hori Superman da” idatziz. Marrazkia eta
telebista ziren nire mundua. Mazinger Z eta
Club Dorothée-ko yonki bat izan naiz. Hor
hasi nintzen manga deskubritu eta nire egi-
ten. Kuriosoa da, 70eko hamarkadan oso
sartuta zegoen manga gurean baina inork ez
zekien Japoniatik zetorrenik. Nerabezaroan,
suposatzen zuen lan zama eta prozesu luzea-
rengatik komikigintza bazter utzi nuen,
baina beti nenbilen nire eguneroko mundua
marrazten. Arte ederretara zinea egiteko
sartu nintzen, ordea. Gure aitona Donostia-
ko Astoriako langilea zen, eta ostiralero ikas-
tola amaituta, hantxe joaten nintzen pelikula
bat ikustera. Baina unibertsitatean hasi eta
arte garaikidea ezagutzeaz gain, talde lanera-

ko ez nuela balio jabetu nintzen. Ikus-entzu-
nezkoak egiten hasita, oso frustrantea zitzai-
dan zeinen ideia zen hobe orduak eta
orduak eztabaidatzen ematea. Horregatik
hasi nintzen berriz Songokuak marrazten.

**Marraztuz, margotuz, edo zinea eta eskulturak
eginez, baina badirudi beti izan duzula garbi
zer kontatua bazenuela. Arloak arlo, beti eutsi
diozu zure diskurtsoari.**

Diskurtsoa beranduago sortzen da, karrera
amaitu eta zure bizitzari forma ematen saia-
tzen zarenean. Zertan ari naiz? Zertarako
marrazten dut? Zergatik egiten ditut grabatu
hauek? Zertarako saldu? Galdera guztiei
erantzuten dien motibo sendo bat behar
duzu, aitzakia erraldoi bat. Haurrak besa-
pean ogi-barra batekin sortzen direla dio
jendeak, baina nik gizakia aitzakia batekin

Nortasun agiria

Hondarribian jaio zen 1971-ko urtarrilaren 30-ean. Euskal Herriko
Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatua, sari andana irabazi
ditu, tartean Caja Madrid-ek antolatzen duen “Generaciones”
delakoa. Egun, Pekinen ditu lan eta bizi tokiak, bere obrak mundu-
ko bazter guztietako galerietan dabilzan arren.





sortzen dela pentsatu izan dut beti. Gustatzen zaizkigun aitzakien inguruan antolatzen dugu gure bizimodua, eta etengabe gabiltza gure bizitza ardaztuko eta justifikatuko duen super-aitzakiaren bila. Arteaz bizitzen hasi aurretik, halabeharrezko lanbide asko probatu ditut. Aritu naiz tabernan, jatetxeetan, etxegintzan, eta harro nago, orain badakidalako hori ez dudala egin nahi. 2005ean hasi nintzen artetik bizitzen eta badakit nire %200 eman behar dudala, gustatzen zaidan lana izateaz gain, islatzen nauena delako. Etengabe ari naiz zabaleran hazten, baina ez diot buruz hazteari utzi nahi.

Artistak berriz jaiotzeko hiltzen jakin behar duela esan izan da.

Zentzu horretan, esperientzia itzela da Txinakoa, nire lana erakusteko parada ez ezik, beste pertsona bat izateko modua ematen baitit. Uste dut gure nortasunak seme andana dauzkala, eredugarriak batzuk eta sasikoak besteak, baina denak ditugula beharrezko gu izateko. Seme guztiek eragiten digutena filtratuz berriak sortzen joaten gara aldiro, eta ni sortze horietan bilakaera baten bila nabil etengabe, ez intelektual bihurtzeko,

eguneroko galderak erantzuteko baizik. Askotan esaten didate nire koadroak nola marrazten ditudan erakutsita jendeak kopiatu nazakeela, baina jendea kopiatzen saiatu arren sekula ez dela gauza bera izango sine-tsita nago. Konbentzituta nago denak daukagula zerbait emateko, denak garela desberdinak, eta denek daukagula desberdina izateko gaitasuna.

Asko baldintzatzen du obra atzean diskurtso eta pertsonaia bat egoteak?

Artearen historian irakasten dizuten lehenbiziko teoria eskegitzen den unetik obra batek bere burua bakarrik defendatu behar duela dioena da. Baina ez da egia osoa, bi gauza oso desberdin baitira artea eta artearen merkatua. Merkatuari begira oso lagungarria da obra ona izateaz gain identifikagarria izatea. Horrek eskizofrenia moduko bat sortzen dizu oster, ez baitakizu zure lana benetakoa ala marketin hutsa den. Horretan datza artista askoren arazo nagusia. Guretzat artea bizitzako zutabe garrantzitsuenetakoa da, emazte moduko bat, eta kostatzen zaigu merkatuan pentsatzen. Baina nork jarritzen du artista bat zeruan ala zapatapean?

Artista gazteek lortzen dituzte bekak, erakusketa kolektiboak, joaten dira hazten, baina galeria batek ez baldin badu zugan sinesten biluzik zaude. Bidasoako eskolako pintore asko eta asko hil dira euren lanak sekula erakutsi gabe, baina gazteok ez dugu halakorik nahi, eta munduko galeria famatuena konkistatu ezean mundua bukatzen zaigula dirudi. Horregatik ez da ahaztu behar artearen merkatua negozio bat dela, eta askotan ez duela onenak eskuratzen lehen postua. Diruak egiten du dirua, eta elite batean saltzen duen artista bazara elite horrek elite horrentzako erakusketak nahi-ko ditu han eta hemen. Hori hala da eta kito. Horregatik jendeak artista naizen galdetzen didanean ludopata naizela erantzuten diet. Nire makinan sagar eta ezkillen partez artea jartzen du, baina egunero ari naiz txanponak sartu eta sartu, sariaren zain.

Zure lanak erosi ahal izateko txanpon asko eman behar ditu makinak. Nire lanarekin maitemintzen den jendearen bila nabil. Obra erosi ala ez, bakoitzaren arazoa da. Niretzako frustranteena nik nire obra bat erosteko beste diru ez izatea da. Azkenerako sekulako bilduma osatzen duzu, muntatzen duzu erakusketa bat, baina ni bezalako pertsona bat gehienez maitemindu daiteke lanarekin, ezin izango baitu erosi. Dena den, erosleak topatzea galeristen lana dela uste dut, eta zuk egiten baduzu, galeriak saltzen duenarekin urte amaierara ez zarela-ko heltzen da. Ezin zara aldi berean artista eta komertziala izan. Ni banaiz, baina ez da sana. Gertatzen dena da arte mundua tipula bat dela eta bakoitzak jakin behar duela ze azaletan dagoen.

Zu zer azaletan zaude?

Erdiko azal batean, ez dut nire burua inongo top-tenean ikusten. Dena den, azalei buruz

"Gustatzen zaizkigun aitzakien inguruan antolatzen dugu gure bizimodua, eta etengabe gabilta gure bizitza ardaztuko eta justifikatuko duen super-aitzakiaren bila"

ari naizenean ez da nire burua gorago ala beherago kokatzeko, azal bakoitzak bere ezberdintasun, funtzio eta helburuak dituela azpimarratzeko baizik. Esaterako, arte munduan badaude gizartean eragiteko xedea dutenak, eta askotan ez dute koadro bakar bat pintatzen, jomuga hori lortzeko nahiago baitute jendearekin hitz egin edo bideoak landu. Gizartean eragiteko modu asko dago, eta nirea sortzen ditudan objektu elitistei gertutasun bat ematea da. Askotan pentsatzen dut jendeak ez duela arteaz gozatzen, ulertzen ez duelako. Inguru festibo eta ludikoak dira nire amuak. Antimonarkikoa izan arren, ez naiz erregearen irudia ezabatuko duen artista bat, nahiago dut jendeak artearekin esperientzia gozagarriak izatea, hurrengoan beste predisposizio batekin hurbiltzeko.

Merkatuak edo zauden azalak baldintzatzen dute zure sormena?

Ez, izan ditzaket muga ekonomikoak, fisikoak edo espazioari lotuak, baina merkatuak ez nau baldintzatzen. Beti oroitzen dut unibertsitateko bigarren mailan ehun koadrotik gora margotu nituela, eta hirugarren mailan ez nekiela zer marraztu. Orduan, zirkuluak eta marrazteko esanez. Garrantzitsua nik sinestea omen zen. Baina zer marra eta zer zirkulu? Zertarako? Zergatik? Ez ninduen berotzen. Hori egitea baino nahiago nuen ordura arte pintatzen nuena pintatzen jarraitu, zertan ari nintzen ez nekien arren, ondo pasatzen nuelako, eta egiten ari nintzen horretan fede apur bat baneukalako. Gusturen nagoen unea, estudioan sartuta, musika topera jarrita, marrazten ari naizen momentua da. Hor deskubritzen ditut gauza berriak, hor nabil etengabe ate zaharrak itxi eta berriak zabaltzen. Bai, ezagutzen dut merkatua, badakit zer egiten

GUIKURI

nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com

den munduan, nire lanek nondik edaten duten, nor ari den nire antzeko bidean... baina ez dut sekula pentsatu hau edo hura marrazteagatik merkatuan arrakasta handiagoa izango dudala. Nire proposamena nirea da, pertsonala, eta ez daukat beste artistengan begia jarri beharrik.

Zure lanetan apenas ageri den nongoa zaren. Zer harreman duzu Hondarribiarekin?

Oso ona. Familia hemen daukat, koadrila eta lagunak ere bai, eta gustatuko litzaidake nire haurrak hemen hazi eta bizitzea. Baina artista bezala Hondarribian mugatua nago, hemen ezin dudalako Pekinen lan egiten dudan baldintzetan lan egin. Ez nabil aitzakia bila orde, eta Hondarribitik kanpo banabil, beste mundu batzuk ezagutu nahi ditudalako da. Hemengo txanpon makina guztiak erabilita neuzkan, eta beste leku batzuetakoak behar nituen. Gainera, ez dugu aukeratzen non jaiotzen garen, baina bai non hazi nahi dugun. Hondarribian egon arren transformatu zaitezke japoniar. Hori da gure boterea. Ezin dugu hegan egin, ultra-izpirik jaurti, baina pertsona gisa garatu eta aurrera egin dezakegu. Nire lanetako ikonografiak ez dauka zerikusirik jaio nintzen herriarekin, baina gaur egun, erabiltzen dudan komiki mota nahiko globalizatu dagoela uste dut. Nire helburua kulturak eta eraginak nahastea da, horregatik diot nire lana abstraktua dela, berez nahiko figuratiboa izan arren. Dena den, asko kostatzen zait metalengoaia horri buruz teorizatzea, introspektzio lan handia eskatzen didalako, eta nahiko biszerala naitenez, biluzik sentiarazten naudelako. Orduan, diskurtso ez hermetikoagoa baina bai politagoa eraikitzen hasten naiz, eta ez dakit egia den ala ez. Garbi daukadana da nire obretan agertzen ez diren gauza askok eta askok ere eragina dutela nigan, eta dagoeneko kontzienteki margotzen 15 urtetik gora daramatzadan arren, Hondarribian hazi zen mutil eta Pekinen bizi den pertsonaren arteko konexioaren bila nabilela etengabe.

Kasualitatez hautatu zenuen Pekinen bizitzea?

Nolaz joan nintzen Txinara? Interneti esker. Harrituta geratu nintzen bertako mugimenduaz, susmatu ere egiten ez nuen egoera batekin egin nuen topo. Bederatzi hilabeterako joan nintzen beka pare batekin, baina urte hartan lan asko egin, erakusketa batzuk egite-



OFF THE RECORD

Hizkera

Pintore zein marrazkilariek hizkera berezia darabilte, oro har. Ez naiz hau edo hura definitzeko existitu daitezkeen kontzeptu metafisikoez ari, eguneroko txikikeria arrunteak ahotan hartzeko duten modu grafikoaz baizik. Pagotxa dira titular ikusgarrien bila dabiltzan kazetari-entzat. Plazera, entzun ahala marrazki bizidunak sortzen joaten direnentzat. Horregatik, konpon-zen dira agian hain ondo argazkilariekin. Auskalo. Dakidana da Judasek ez zigula traiziorik egin.

ko aukera izan, eta sari potolo bat eman zidaten Madrilén. Kurioso da hori. Zuk pentsa Hondarribia utzi nuenean ez neukala tokirik nire koadroak uzteko, eta lagunei oparitzen ibili nintzela halabeharrez. Joan baino lehen, koadro bakarra utzi nien lagunei lehiaketa horretara bidaltzeko aginduarekin, eta bertan irabazitako 15.000 euroei esker bertan geratzea erabaki nuen. Harrigarria zaidana da han nagoenetik hemengo jendeari niganako interesa ernatu izana. Ni ez nintzen horretarako joan, baina han egoteak aukera eta errekonozimendu dezente eman dit.

Komunikabideek munduan Txinaz zabalitzen duten irudiak ez dauka zerikusi handirik artearekin. Zer dago benetan irudi horren gibelean?

Erosi hegazkin txartela eta zatoz zeure begiz ikustera. Noski, akats ugari ditu Txinak, eta ez naiz ni izango bere defendatzaile sutsua, baina aitortu behar dut oso gustura nagoela bertan. Jakina pribazioa, debekuak eta mugak daudela, eta herrialde guztietan bezala sekulako astakeriak gertatzen direla. Gure lagun batek esaten du gaitutako behar ez den lerro bat dagoela txinatarrentzat eta beste bat atzerritarrentzat, baina behin marra gaitutakoa, denak gaitutakoa berdina justiziaren aurrean. Niretzat akatsik larriena justizia eta boterearen arteko banaketarik eza da, baina errealtate hori ez dago Txinan bakarrik. Hortik landa, etengabe bere ereduaren arabera hazten ari den herrialdea da. Munduak egin ezin duena da urteetan bera egiteko gai izan ez dena Txinari egun batetik bestera exijitzea. Amerikarrek hau edo hura esan dezakete, baina ez ahaztu Txina dela munduan diru gehien daukan herrialdea. ■

• Auzo palestinarraren kolonizazioa •

Etxetik kanporatuak Jainkoaren izenean

Nasser Ghawik eta bere familiak sei hilabete daramatzate kalean, euren etxearen aurrean jarritako kanpin-dendan. “Oraindik ere, nire etxea da”, dio palestinarrak. Hala ere, 2008ko abuztuaren 2tik aitzina, bere bizilekuko balkoietan Israelgo bandera eskegita dago eta giltzak ultraortodoxo talde batek ditu. Etxea Jerusalem mendebaldeko Sheikh Jarrah auzoan dago.

Testua eta argazkiak:

ALBERTO PRADILLA

GHAWITARREK PAIRATZEN duten egoera ez da bakarra inguruan. Auzoak 28 familia ditu guztira, eta horietatik lau euren etxeetatik kanporatuak izan dira. Eta gehiago izan daitezke. Jerusalemeko eremu palestinarrak jomugan jarri ditu Israeliek eta 1981ean legez kanpo batu ziren auzoak “juduztatzeko” prozesua ziztu bizian ari da gauzatzen. ICAHD-ek, etxeak suntsitzearen kontrako komiteak, egoera hau salatzen bideratzen ditu esfortzuak, beste hainbat erakunderekin batera. Izan ere, prozesu horrek ondorio bakarra dauka: bulldozer-ek txikitutako etxe gehiago, eta haien familietatik eta bizilekuetatik baztertutako palestinarrak gehiago. Nasser Ghawiren familia adibidez, egun batetik bestera kale gorrian

geratu zen. Euren logeletan, dozenaka pertsona arrotz daude orain.

“1956tik, etxe hau nire familiarena da”, azaldu du Ghawik, emaztea eta bost seme-alaba dituen 46 urteko palestinarrak. “Hementxe jaio nintzen, etxean, ez ospitalean”. “Auzo hau babesteko nago hemen”, jakinarazi zuen iazko urtarrilaren 25ean, bere kanpin-dendaren aurrean ipinitako aulkian eserita. Orduan, ordea, ez zekien auzoan igaroko zuen denbora hain laburra izango zenik. Esku tartean, sua bizirik mantentzeko burdinazko makila zuen. “Behar izanez gero, neure burua babesteko ere balioko dit honek”, zioen. Bost metro eskas daude dendaren eta etxearen artean, bidearen beste

Nasser Ghawi palestinarraren familia etxe aurrean paratuta duten kanpin-dendan bizi da. Sheikh Jarrah auzoan dauden 28 familietatik lau euren etxeetatik kanporatu dituzte judutarrek.





aldean baitago orain ikur israeldar eta judutarrez josita dagoen etxea. “Israelgo bandera ez da inoiz Sheikh Jarrah auzoan bezain modu nazkagarrian mugitu”, ohartarazi du *Haaretz* egunkariko zutabegile Gideon Levy-k.

Nasser Ghawiren historia ez da berria. XX. mendean hasi eta 1948. urtean, Israelgo Estatuia izendatu zutenean, sistematikoki ezarri zen palestinarren exodoari lotutako historia da. Urte horretan, Safarand Al Amar-etik kanporatu zituzten 2.000 pertsonen artean zegoen Ghawiren familia. Tel Aviv-etik gertu dago herri hori, eta urte haietan tropa sionistek bere gain hartu zuten. Mende erdi geroago, aurretik bere gurasoek egin antzera, Ghawi kanpin-dendara itzuli da orain. Urte haiek “Palestinako garbiketa etniko” bezala definitu zituen Ilan Pappé historialari israeldarrak. “NBERekin akordioa egin ostean eskuratu zuen nire aitak etxe hau”, dio Ghawik, serio jarrita. Palestinako errefuxiatuendako agentziarekin, UNRWArekin, negoziatu eta gero joan ziren familia horiek guztiak Sheikh Jarrah auzora bizitzera. Erbesterratu gisa identifikatzen zituzten txartelak ematearen truke lortu zituzten NBek eta Jordaniako Gobernuak eraiki zituzten etxeak. Orain, 62 urte iragan ostean, errefuxiatuak dira, beste behin ere.

Judutasunaren izenean kaleratuak

Ghawi eta Hanoun familiak euren etxeetan finkatu ahal izateko bidea ireki zuen epaia 2008ko abuztuaren 2an ailegatu zen. Hanoundarrek “beste odol bat daukate, baina anaien gisako harremana dugu”, adierazi du Ghawik. Palestinarrak beren etxeetatik kanporatzeko lanetan 70eko hamarkada hasieratik diharduten kolonoen alde egin zuten epaileek. Posible al da, Jainkoak lur horiek eman dizkiela argudiatuta, 37 lagun euren etxeetatik kanporatzeko helburua duten pertsonekin arrazoitzea? Kontua da Israelgo epaileek arrazoa eman zietela: auzo horretako juduen presentzia 1967ko okupazio militarrekin batera hasi bazen ere, Sheikh Jarrahren “judutasuna” ziurtatzen omen duten paper otomandar

Ezker-eskuin:
Nasser Ghawi
Sarah alabarekin,
euren etxearen
aurrian; Al Kurds
famiariako kidea;
internazional bat
kanpin-denda
jartzen; eta
neskato
palestinarra
soldaduen aurrian,
auzoko
kolonizazioaren
aurka astero egin
ohi den
manifestazioa hasi
aurretik.

batzuk atera zituzten epaiketari. Zantzu guztien arabera, baina, dokumentu horiek faltsuak dira. Orduan, zein izan zen arrazoa? Palestinarrak ere paper horiek dauzkate, baina, beraien kasuan, Turkiatik iritsi zaizkie, eta bertako gobernuak, poliki bada ere, etxe horien benetako jabea zeinena den erakusteko frogak helarazten ari da. Ahatik, Ghawidarrak eta Hanoundarrak beren etxeetan ‘okupa’ bilakatu dira, Israelek erabiltzen dituen hitz berak aukeratuta.

Eurena ez da halako historia triste bakarra. Al Kurds familiak, esaterako, kalte bikoitza izan du. 2008ko azaroan, Abu Kamel eta Umm Kamel kalean geratu ziren, kolonoek euren etxeetatik bota eta gero. Etxean sartu, eta gutxika, gela gehiago hartuz joan ziren kolonoak. Azkenean, familiako bi adinduek ez zen tokirik geratu: gizonezkoak 69 urte zituen, gaixotasun larria zeukan eta kanporatuak izan eta egun gutxira bihotzekoak jota hil zen. Umm Kamelek bizilagun baten lur-eremu pribatuan jarri zuen kanpin-denda. Emakumea ikur bilakatu da dagoeneko Sheikh Jarrah auzo palestinarra izaten jarraitzeko borrokan. Senarra hil zela esan ziotenean ere, ez zen handik mugitu, eta hilotza kanpamenduraino eraman behar izan zuten, emaztearen agurra jaso zezan.

Auzo palestinarreko 28 etxeak suntsitu eta bertan auzo judutar bat eraikitzea da asmoa

“Milioi bat urte kostata ere, nire etxea berreskuratuko dut”, aditzera eman zuen Kamelek, orain kolonoen esku dagoen bere semeetako baten etxearen aurrian. Iazko abenduan, kolonoek Al Kurdsen kontrako bigarren erasoak jarri zuten martxan. Etxearen beste zatiak familia palestinarrena izaten jarraitzen duenez, bertan kokatu dute bigarren kanpin-denda. Kanporaketa sinatu zuen Israelgo epaileak judutarrei etxebizitzan egote-



ko baimena ukatu zien, baina Daviden izarra daukaten banderak bertan daude, 'eremu askatua' dela erakusteko. Umm Kamelen semeak hamar urte eman zituen pareta horiek eraikitzen eta orain kolonoen biltegi eta bulego bihurtu dira. Halaber, inprobisatutako komisaldegia hartzen du etxeak. Sheikh Jarrahko errefuxiatuak laguntzen dituzten internazionalak atxilotzen dituztenean, hara eramaten ditu poliziak.

Israelek egiten duen Sheikh Jarrahren kontrako erasoak dozenaka lagun mobilizatu ditu. Baina fronteak dibertsifikatu egin dira. Silwanen, hiri zaharreko harresiaren ondoan, 88 etxebizitza daude mehatxupean. 500 bat pertsonak astero manifestazioa egiten dute auzo horren kolonizazioaren aurka. Hori bai, arraroa izaten da parte-hartzaileen artean palestinarrek ikustea. Izan ere, nola mobilizatuko dira? "Gure bizilagunak beldurtuta daude. Edozein egunetan beraiei gerta dakieke", kexu da Ghawi. Auzokideak atxilotzen hastea da daukaten beldur nagusia. Sheikh Jarrahn mundu guztiak daki ez dela gauza bera komisaldegitik pasatzea Israelgo edo nazioarteko ekintzaile izanda, ala palestinarra izanda. Azken horien kontrako ikerketak beti egiten du aurrera, eta aldiz, ekintzaileak 24 ordutan askatzen dituzte.

Zeintzuk dira kolono hauek?

Nondik atera dira Nasser Ghawiren etxea hartu duten kolonoak? Meir Margalit-ek erantzun digu: "Israeldarrak daude, baina Frantziatik etorritako judutarrak ere bai", azaldu du Jerusalemen Meretz alderdi ezkertiar eta sionistaren zinegotzi eta etxeen suntsipenaren kontrako komitea sortu duenak. Kasu hone tan, 'okupak' ultraortodoxoak dira eta Jainkoak lur horiek judutarrei eman zizkiola argudiatzen dute. Yeshivetan ikasi dute, eskola ultra-abertzaleetan; orain, eremu okupatuetan Israelgo abangoardia bilakatu dira eta erabiltzen dituzten uniforme beltzek nabarmen uzten dute nortzuk diren. Sheikh Jarrah kolonizatzearen helburua honakoa da: 28 etxeak

Auzo palestinarren kolonizazioa

beren gain hartu, suntsitu, eta bertan, Jerusalem mendebaldean, auzo judutar bat eraikitzea. Proiektua dagoeneko idatzita dago eta Simon Hatzidic izena hartu du. Alegia, ustez eremu horren lurpean dagoen bigarren tenplu bateko apaizaren izena hartuko luke auzo judutar berriak.

Kolonoekin hitz egitea ez da batere erraza. Haiei zuzentzea, eta egunero Ghawiren etxetik ateratzen direnean zer sentitzen duten galdetzea, pentsaezina da. Ondoko kalean eserita egon ohi da Ghawi, suaren ondoan, begirada bere etxean finkatua duela, mugitu gabe. Kolonoek horren guztiaren inguruan ez dute hitzik egiten. Are gehiago, haien begiradetan mespretxua ikusten da, eta irribarreetan, probokazioa. Azken asteetan, gainera, laguntza handia jasotzen ari dira; esate baterako, Baruch Marzel ultraeskuindarrarena. Hebrondik iritsi da Marzel, palestinarren kontrako indarkeria bortitza dela eta ezagun egin den koloniatik. "Jaungoikoak lur hauek eman zizkigun eta arabiarrek suntsitu egin nahi dituzte", erantzun du suminkor, manifestari batzuen aldarrien aurrean. Protestan ari direnek Itun Zaharrean agertzen diren aginduak gogorarazi dizkiote: "Ez duzu hilko, ez duzu lapurtuko, atera zaitezte Sheikh Jarrahtik".

Gauetan, kolonoak kaleetara ateratzen dira. Horietako paseo batek eraman zuen Nasser Ghawi kanpin-dendara, erbestera. Iazko urtarilaren 31n, behin Shabbat festa judutarra amaitua zela, hebrear bat Ghawiren semeetako bat erasotzen saiatu zen. Semearen garaiera ez da metro erdira iristen eta berau defendatzaera hurbildu zen aita; esku artean zuen burdinazko makilak kolonoaren M-16arekin topo egin zuen, aurrez aurre. Azkenean, ez zen ezer gertatu, baina antzeko beste egoera batzuetan, kolonoek palestinarrek metrailatu izan dituzte. Urtarrilaren 31n, kolonoak arma prestatu zuen, desafioan, baina zorionez, ez zuen tiro egin. Hori bai, hurrengo egunean, bi astez Sheikh Jarrahtik urrun egotera kondenatu zuten Ghawi. Gainera, Israelgo poliziaren hainbat patruilak haren kanpin-denda eraman zuen. Hamaikagarren denda zen hura.

"Kentzen duten aldiro, ordu bat ere ez da pasatzen berri bat jarri arte", adierazi digu, harro, Ghawik. Egun horretan ez ziren 60 minutu izan, baina arratsaldeko lauretarako denda dagoeneko zutik zegoen, beste behin ere. Bitartean, israeldarrek mehatxu egin zieten, Ghawi familia kikildu nahian: "Berriro kenduko dugu". Eta berriro paratuko du Ghawik kanpin-denda, aitaren bizilekuaren aurrean. Berea den etxea itzuli arte. ■

www.argaia.com/multimedia
helbidean, erreportajearen diaporama.

Ahari itsua



itzak garbitzen saiatu behar du idazleak. Ados. Esanahi berriei deitura jartzen eta, batez ere, esanahi berriak sortzen. Lengoaia zabal, unibertsal eta ireki bat helburu. Horretarako, desikastera gonbidatzen gaitu Ixiarrek. Eta, hemen, nire aitonaren esaera batekin gogoratu naiz: “Atzera pausurik ez eman behin ere; egiten duzula egiten duzularik ere, aurrera beti!”. Entzungo banindu, hitzok bereak direla aitortuko lukeen agure zaharrak zera zioen: “Mundu honetan inportanteena lehena izatea da; kaka egiten bada ere, baina lehena: txapela, txapela da”. Eta ondotik, Amezketarraren ahariarena kontatzea gustatzen zitzaion. Ba omen zeukan Fernandok ahari bat itsua zena. Topeka egitera eramaten zuean, jartzen omen zuen aharia marraren aurrean eta aharia mugitzen ez. Orduan, aurkaria, Fernandoren aharia mugiarazteko eta marratik bestaldera botatzeko, atzeraka hasten omen zen. Zenbat eta atzerago, orduan eta indar handiago hartzeko. Baina Fernandoren aharia, itsuaz gain, zaharra eta zuhurra izan eta kieto. Amorrazioz, aurkariak, gero eta atzerago egite horretan, atzeko marra zapaldu eta apustua galdu egiten omen zuen.

Gertakizun honek ez dauka lengoaia berriarekin zerikusirik. Baina bai atzera egitearen edo desikastearen ideiarekin. Askotxo gara ikasi dugunaz harro baino harroago gaudenak. Ahanzteko asmorik gabeak. Are gehiago, ikasi eta ikusi genuen hartan oinarritzen garenak, batez ere, aurrera egiteko.

Bada beste euskal idazle bat ere desikaste prozesuaz idatzi duena. Desikaste prozesuaren beharraz. Nahiz eta hark, tribu kontzeptuari aurre egiteko desikasi beharko genukeela azpimarratzen duen, eta gizarte berri eta orekatuago bat sortzen saiatu.



Ana Urkiza

Padriñ

Rozas

Ados nago bai, Ixiarrekin, zaila bada ere. Ez baikaude horretarako hezita. Eta oinarriei muzin egitea, gehiegitxo izan liteke, batez ere, hitzekin jolasteko ohiturarik ez dutenentzat eta lengoaia berriaren garbitasunean sinestea zaila gerta dakiekeenentzat.

Hitzari maiz lotzen zaion beste lengoaia batean hitz egin duen asteburutik nator, ordea:

Andoaingo piano lehiaketatik. 800 gazte baino gehiagok parte hartu du bertan. Eta lengoiaitik hizkuntzara pasatuko naiz: bi hizkuntza entzun nituen nik bertan: aurkezpenarako erabilitako euskara lehenengo eta ondoko gaztelaniaz gainera, musika bera, eta errespetua. Ez zegoen besterik. Gazteek musika nola interpretatzen duten entzutera joan ginen. Eta zera gertatu zen: batzuk hobeto besteak baino, denek ulertu zutela lengoaia hartan interpretatzen saiatutakoa. Beste ezein lengoiairen gainetik abiatu eta ibili ziren. Gure alabak lau eskutara jo zuen beste laguntxo batekin. Ondo pasatuta etorri zen, Legazpiko eta Gernikako laguntxo berriei beren helbide elektronikoa pasatuta. Brontzea atera zuten batzuek, urrea besteek. Berehala onartu zuten bai batzuek zein besteek, bakoitzaren maila eta neurria ezberdina zela. Lengoaia berean hitz egin zuten, eta onartu.

Hau da, nire ustez, gure herri bipolar eta eskizofrenikoari falta zaiona. Lengoaia bat asmatzea, zeinetan esperientzia berriak eta baikorrak biziko dituen. Baina esperientzia berri honek, aurrera begiratzeko izan

behar du. Desikastea da, hein batean, baina atzera begiratu beharrik gabe. Aurrera egiten ari zaren sentsazio garbiagoz.

Baliteke bipolaritatea aurrez aurre jartzeko eta inori ahari itsuaren papera egotzi gabe jokoan hasteko, belau-naldi gazteen lengoaia berrietatik ikasi beharra izatea. ■

Hau da gure herri bipolar eta eskizofrenikoari falta zaiona.

Lengoaia bat asmatzea, zeinetan esperientzia berriak eta

baikorrak biziko dituen. Baina esperientzia berri honek,

aurrera begiratzeko izan behar du. Desikastea da, hein

batean, baina atzera begiratu beharrik gabe

KASU! hau panfletoa duzu

BARAZKIRRI

Bi urteko baraualdiaren ondotik,
barazki salda bezalakorik ez da:

OTSAILAREN 19^A

ayratsaldeko getatik

HURRUPALDIA
BILTZEa
AFARIA
MUSIKA
MARRAZKIA

ELTZEKARIA, OGIA ETA ARROA ENTOLAKUNTZA
REN GAIN ETA BAKOITZAK EKARRIKO DITUE
JATEKOAK ETA EDATEKOAK PARTEKATUKO DITUGU

DENON ARTEAN 2011ko
MARRAZKIRRI
REN FORMULA BERRIA
asmaturiko dugu...

deia di irakia ideiak bera, mailagatu, sozializatu nahi
dituen orok. Ixuratu nahi baduzu le esan jakinaraz: marrazkirri
HAIZE BERRI · IZURAKO PLAZA · OZTIBARRA [@gmail.com](mailto:hb@gmail.com)

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Gure komunikabideen inguruan

Lopez lehendakari izendatu zutenetik aldaketa handiak izan dira EITBn. Badirudi normala dela agintean alderdi berri bat dagoenean komunikabide publikoetan eskua sartzea eta bere ustez gaizki eginak zuzentzea eta konfiantzazko arduradunak izendatzea.

Aurreko guztia normala omen da gure kulturari, agintean dagoen alderdiaren edo ideologiaren kontrolpera pasatzen direlako komunikabide horiek. Ez omen dugu erakunde publiko eta aldi berean alderdikieretik at eratze gaitasunik, ez tradiziozko ezta asmorik alderdien partetik. Hezkuntzarekin gertatzen den bezala, komunikabideen arloan ere ez dago proiektu luze eta zabalak eraikitze-ko oinarritzko akordioak.

Eta testuinguru honetan aurkitzen gara orain EITBko garai berri honetan. Ikus-entzuleen aldetik batez ere kritikak entzun dira –ziur aski gustura daudenak isilik daudelako– eta egon dira boikota ere eskatu dutenak. Egia da tertulietan eta, iritzien aniztasuna jaitسي dela; egia da albistegietan euskal komunitatea gero eta ikusezinagoa dela, eta aitortu behar da orain dela gutxira arte EITBko ikusle- goa izan den hori gero eta deserosoago aurki daitekeela. Bestalde ikus-entzuleen jaitsierara nahiko handia izan dute; alde



DANI BLANCO

batetik konpetentzia gero eta handiagoa delako eta bestetik ikusle eta entzuleak ez direlako identifikatuta sentitzen komunikabide hauen ildo berriarekin. Kontua, Jon Alemanek *Berrian* oso argi adierazi bezala, zera da, euskarazko komunikabide horiek direla gureak –edo gureago direla Telecinco edo antzekoak baino–.

Nik, egia esan, asunto honen guztiaren ondoren bi galdera edo bi kezka ditut. Alde batetik honek guztiak argi eta garbi uzten du zein ahula den abertzaleen komunikabideen indarra. Prentsa idatzian euskarazko komunikabideek kostata egi-

ten dute aurrera eta erdarazkoen artean nagusitasun osoa du prentsa espainolistak. Bitxia da Vocento taldearen indarra gure gizartean, abertzaleek erosten eta irakurtzen duten seinale; edo Espainiako irrati-telebisten nagusitasuna. Alegia, nire ezagun batek Vocentoko egunkari baten izenburua irakurtzen zuen bezala: “*El Correo Español-El Pueblo Vasco*” (horixe izan baita duela gutxira arte egunkari horren izena!).

Eta bigarren kezka. Zein izango da kaltetuen EITB pikutara joanez gero? Nori egin diezaioke mesede euskal irrati-telebisten audientzia jaitsierak? Posible al da komunikabide bateko zuzendaritzak honen porrota desiratzea? ■

« Bitxia da Vocento taldearen

indarra gure gizartean,

abertzaleek erosten eta irakurtzen

duten seinale; edo Espainiako

irrati-telebisten nagusitasuna

»

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Oraindik ere lotuta nago *La cinta blanca* (*Das weisse Band*) pelikula

zirrargarriari. Ez da pelikula bat zine aretoan irenstekoa. Albo-ondorioak uzten dituen horietakoa da. Hurrengo egunetan konpartitu behar duzu pelikula alboko norbaitekin; susmoa duzu detaile asko geratu direla bidean; bere osotasunean ez duzula irentsia. Michael Haneke zuzendariak Lehen Mundu Gerraren atariko herrixka bat aurkezten digu, non biztanleria, ustez, lasai bizi den. Herriaren giroa, zuri-beltz indartsu batean kontatua dago; bertan, hez-

Das weisse Band

kuntza hertsiki bat erakusten zaigu, izuan eraikia, batez ere haurrengan. Hauek zigor fisikoa edo abusu sexuarean

oinarritzen den hezkuntza jasaten dute. Eta noski, haur hauek, bere gurasoen esanekoak direnez, haur guztiak bezala, ikasten dute besteak zigortzen, beraiei erakutsi zaien bezalaxe. Ez edonori. Aukeratzen dute aratz eta duina ez den norbait. Eta orain galderak. Zerk sortzen du gaiztakeria egiteko grina? Herrian denek zeukaten biolentzia horren testigantza. Etxe bakoitzean bazegoen bere itzala. Eta hala ere isiltasuna. Gaiztakeriari, noizbait, erantzun behar diogu. ■

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

Gazte (g)eroaz

Gaur egungo gazteen identitateari erreparatzen diogunean, hamaika ezaugarri esleitzen dizkiegu. Materialki behar dutena baino gehiago izatea, euren buruaren imajinaz soilik arduratzea, eroso bizitzea dute jomuga, esaten dugu sarri. Baieztapen honen egiazkotasuna bilatzen nabil azkenotan.

Hogeitaz urteko gazteekin uneak eta guneak konpartitzeko zortea edo pribilegioa daukat eta egia esan, sumatzen dut ez dela guztiz egia esan berri dudana. Gazte erotzat dauzkagun horiek, geroa kezka bizi dute, kontua da, iparra lauso dutela. Aurrean duten gizar-teak hainbat eta hainbat bizitzaredu eskaintzen dizkien bitartean, sakonean badaukate, balio horien kontrako bulkada. Aurrean daukatenaren eta sakonean sentitzen eta pentsatzen dutenaren arteko gatazka bizi dute. Kezka dute munduaz, miseria, injustiziaz, egoera politikoaz, baina, kezka zelan bideratu ez dakite. Kezka edo haserre hori formulatzeko edo azaleratzeko gai ez dira eta ez dakite bulkada hori nola bideratu eta biderkatu. Agian, inork ez die-lako irakatsi hori egiten.

Ez dugu arretarik jarri gazteen formazio sozio-politikoan, “politikaren” desprestigioa dela medio edo aitzakia, albo



JUDITH FERNANDEZ



Ez dugu arretarik jarri gazteen

formazio sozio-politikoan,

‘politikaren’ desprestigioa dela

medio edo aitzakia, albo batera

utzi dugu gazteen ideologia

zaintzeak eta ideologia horretan

zailtzeak daukan garrantzia



batera utzi dugu gazteen ideologia zain-tzeak eta ideologia horretan zailtzeak daukan garrantzia. Ondorioz, gaurko gazteen identitatea definitzerakoan sinplekeriatan eta errazkerian erortzen gara. Ezin ditugu gazte guztiak zaku berean sartu. Gutxiengo da gizarte honen arazoak indiferentziaz bizi dituen. Gehienek diagnosi ezkorra egiten dute, beraz, kezka badute.

Ez dago alde handirik lehengo eta gaurko gazteen artean. Gaur egungo gazteek ez dute “gazte gara gazte eta ez gaude konforme” abestuko, baina nork ez du entzun “*moving all the people moving?*” edo bertsolaritzak hartu duen gazte erreibindikatzailerik? Gazteak esna daude, hurkoarekiko barne bulkada bizirik dago; edozelako eta edonolako injustizien aurrean eurak ere altxatzen dira. Ez dira apatiko eta ez dira indiferente. Agian gure beharra gehiago da: gaztea estereotipatu, etiketatu eta geurea den/izan den ardura euren bizkar uztea. Litekeena da hori gertatu izana. Agian, horrela da.

Gazteen hezkuntza sozio-politikoak helburu izan behar du. Hausnarketarako gaitasuna, kritika eta autokritika, eta bizi dugun errealitatearen gaineko kezka piztea eta eragiten irakastea, gazteen heziketaren ardatz izan behar du. ■

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza

Frankismoaren



Gorrian haziak trantsizioaren garaian genituen aurreikuspen ezezkorrenak betetzen ari diren unea bizi dugu. Iragan hori hurbilegi dugu ahanzturak jo ez gaituenok. Oraindik fresko dugu *Berroziak* prestatzen aritutako adituen afera hura, ARGIAk hain arduratsuki salatutako hura. Ordurako guardia zibilen eta polizien torturak jasanak genituen. Gure etxeetako ateak kolpeka bortxaz hautsitako loaldiak eta haien ondorengo komisaldegiko egun latzak ez gaituzte abandonatu. *Egunkariaren* zerratze inpuneak epaiketa formala iragan du, kasu baikorrean Estatuak kitore-

kin likidatu nahi duena egindako basakeria bere horretan utzirik normaltasun demokratikoaren izenean. Dozena baten gainean isolatu nahi dute dozena milako partaidetza izan zuen proiektua, berriro ere martxan jarri behar izan dena. Hondar astean torturaren latza ezagutu duten gazteen abokatuen salaketak kolpatu digu. Ertzaintzak, espainol polizia eta guardia zibila bezain demokratikoa dela frogatu nahi izan du. Normalak direla erakutsi nahi dute, ez dute beste biderik ezagutzen profesionaltasuna adierazteko. Iritsiko zaie kontuak emateko garaia, onenean jubilatu ondoren noski. Justizia, gauzatzen den gutxitan geldoa da. ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Sarriegi

Bertso Egunerako jarriak

“Denok dakigu adin batera iritsitakoan pertsona ‘heldu’ egiten dela, beste maila batera igarotzen dela, aurrez izan dena ukatu eta mespretxatzera. Pausu hori jadanik eman duen pertsona baten azaletik jarritako bertsoak dira”.

I

Zilegi bekit garai bateko
oroitzapenez hastea
ni ere izan nintzen umea,
nerabe eta gaztea.
Baina bizitzak eskatzen digu
heltzea eta haztea.
Gizarte hontan gorantz joatea,
hori da irabaztea!
Gidoi batean murgildu ginen
ni ta nire emaztea
gauza bat soilik ahaztu zitzaigun:
gidoia geuk idaztea.



DANI BLANCO

II

Behin emaztea aipatu eta
hura zen ezkontza hura!
Berrogei lagun ermitara ta
berrehunen bat otordura.
Trajeatuak barra ertzer a
ta Orfeoia kantura.
Dena onetik, dena hobetik
noble berrien modura.
Aitak ordaintzen zuen artean
bazkariaren faktura,
gu Kanadara joan ginen lagun
langabetuen kontura.

III

Baina gerora errutina zen
gure bizitzaren jabe
eta haurtxo bat izan genuen
gure harremanaren alde.
Amonarekin dagoenean
gu ere gustura gaude
pintxoak jan ta kariantza edanez
berriz nobioen pare
baina gauetan esnatuz loa
zapuzten digu halare.
Ume bat nola etor daiteke
eskulibururik gabe?

Azken bertso hau neure ahotik
ta sortatik apartean
mespretxatua sentitu bainaiz
sarri begiradapean.
Zer gertatzen da ez badut sartu
nahi horrelako katean?
Hori gidoi bat besterik ez da
beste askoren artean...
Bakoitzak bizi behar duenez
gustuko duen batean
zuen bizitzak konpondu arte
utzi besteok bakean!

IV

Urtean behingo parrandarako
ez naiz egoten zalantzan
umea lotan utzi ondoren
eta emaztea plantzan.
Despedidako afari latza
eta gero... txan ta ta txan!
Kendu eraztuna behatzetik ta
zeozeren esperantzan
Pub-en batean bukatzen dugu
ohartu gabe balantzan
hoge urteko neskei begira
berrogeikoekin dantzan.

V

Bagoaz zentro komertzialera
dena ez baita parranda
azken urtetan astearteko
gure plana hau izan da.
Dendarik denda gabiltz haurrari
lau litxarkeri emanda.
Dantzatu VISA eroen gisa
hemen guztia da ganga...
Azokan ere ibiltzen gara
tokatzen denean txanda
hiru letxuga regateatzen
BMWan joanda.

VI

Badut lagun bat, demagun Aitor
solteroa, zer arraiol!
Izan ez dena bizitzan mailaz
igotzeko bezain iaio.
Tarteka zerbait ligatu arren,
egin arren zenbait saio.
Gizajoari ohartzeko
arroza pasako zaio...
Nire bizitza bideratutik
sarri hurbildu natzaio...
Nahiz ta urte bat den andrearekin
larrurik ez dudala jo.

2010eko urtarrilaren 29an, Bertso Egunean, afalostean kantatuak.

DOINUA: Haizea dator ifarraldetik.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



Literatura

Asun Garikano

Itzultzaile zaildua da. Itzuliak ditu euskarara Robert Louis Stevenson, Patricia Highsmith, Prosper Mérimée, John Steinbeck, William Faulkner... eta gaztelaniara, berriz, Bernardo Atxaga. Irakasle ere bada, literatura eta itzulpena irakatsi izan du eta gustuko du literatur testu ederrez baliatzea. Koxka bat estuago jardun du oraingoan, eta Mendebalde Urrunera abiatu zen euskaldunaren lekukotasun bikainenak euskaraz ekarri ditu *Far Westeko Euskal Herria* liburura. Urruneko euskalduna etxera hurreratu digu.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Alex Larretxi

«Nortasunari eusteko euskal-amerikarren ahaleginak ez ditugu aintzat hartzen»

Itzultzailetzat zintuguna, urre biltzaile jardun duzu Kalifornian eta Mendebalde Urruneko lau bazterretan...

Halaxe izan da, bai. Liburuan agertzen diren pertsonaien artean neure burua inorekin identifikatzekotan, Pete Agereberryrekin identifikatuko nuke. Hark urrea aurkitu zuen Heriotza Ibarreko bazter urrun batean, meategi atarian etxola jaso eta berrogei urte

bizi izan zen bertan. Diru premian zenean, meategira sartu eta urrea ateratzen zuen. Reno-Nevadako Unibertsitatean ibili nintzenean Pete hura bezala ibili nintzen. Euskal Ikasketen Zentroko artxiboak nituen nik meategi, ondoan nuen bulegoa, eta ezer behar nuenean artxiboetara jotzen nuen. Urre pipita, mineral puska edo topatzen nuena hartu eta aztertzen nuen, benetakoa



zen edo ez, balio literariorik zuen edo ez. Testu on baten aurrean sentitzen nuen poza Pete Agereberryk sentitzen zuenaren parekoa izango zela uste dut.

Ohiko itzultzaile bidea utzi eta ikerketari lotu zara.

Ez da erabat horrela. Ni, itzultzaile ez ezik, irakaslea naiz. Literatura erakutsi izan dut, eta itzulpena ere bai. Eskolak emateko garaian, beti saiatu izan naiz ikasleei testu onak eskaintzen. Kasu honetan, Nevadara nindoala-eta, euskal emigrazioaren inguruko lana egitea neraman barruan eta, gaia aurkezteko, testu onak bildu behar nituela pentsatu nuen. Nire ohiko bidetik ez oso aparte, beraz. Lanean hasita, aurkikuntza batek garrantzi handia izan zuen. Nevadako Florence Etcheberryren etxean ginen, eta haren liburutegian Joan Errea izeneko andre baten kontakizun autobiografikoa aurkitu nuen. Hura irakurri eta iruditu zitzaidan egia handiagoa zegoela kontakizun hartan emigrazioari buruzko liburu askotan baino. Eta erabakita geratu zen nire lanaren nondik norakoa: lehen eskuko testigantza biografikoak bilatzen saiatuko nintzen. Horrelakoz osatuta dago, neurri handi batean, liburua. Lekuko zuzenak dira protagonista. Nire lana narrazioak aurkeztea izan da, haiek beren testuinguruan kokatzea, historiak bata besteari lotzea, liburua ez zedin bilduma hutsa izan.

Urre biltzailearen lana beti da abentura, ezin jakin metal preziatua noiz eta nola agertuko den, ezta agertuko den ere. Etsipengarria, zenbaitetan...

Nevadan nengoela egin nuen bilketa lana. Idatzi, berriz, hona itzulita idatzi dut liburua. Han bildu, irakurri, aukeratu nituen testuok... Lanaren fase hori oso polita izan zen, emozio handikoa; mundu hori deskubritzea, alegia. Izan ere, nik zer nekien, bada, hartaz, Mendebalde Urruneko euskaldunetz,

"Liburuak AEBetako euskal emigrazioaren irudi egiazkoa eman zezan nahi nuen"

"Ahalegin handiagoa egin da han hango historia jasotzeko, hemen baino"

hemengo jendeak dakizkienak eta behin eta berriz errepikatzen diren estereotipo horiek izan ezik? Artzain joan zirela, bakardadean bizi izan zirela... Bat-batean, hori ez ezik bestelako mundu bat, osoa, hasi nintzen deskubritzen: artzainak baino lehen urte biltzaileak eta diligentzia gidariak izan zirela han; gogoz joandako jendea, eta gogoz kontra joandakoa; emakumeak... Mundu askoz zabalagoa, beraz. Mundu hori nire aurrean azaltzea oso ederra izan zen. Zailtasuna gero etorri zen, hona heldutakoan, handik ekarritako testu eta argazki pila antolatzeke garaia heldu zenean.

Buelta asko eman eta gero, narrazio bat osatu nuen, 1848-49an hasten dena, lehenengo euskaldunak Kaliforniara iristen direnean, eta ehun urte geroago amaitzen dena.

Testu ederrok antolatzea izan duzu lan handia.

Ez nuen testu pilaketa soil nahi, eta horregatik saiatu naiz egitura lantzen, irakurleak atal bat amaitu eta hurrengo irakurtzeko jakin-mina eta gogoia izan ditzan. Egituratzeko lana, azken finean, muntatze lana izan da. Banuen beste kezka bat ere: zein irudi eskaini behar nuen. Liburuak AEBetako euskal emigrazioaren irudi egiazkoa eman zezan nahi nuen, benetakoa. Horrek atal bakoitzari zegokion garrantzia ematea esan nahi zuen, *crazy Basque* [euskaldun eroak] eta artzainei leporatu ohi zitzaizkien estereotipoak bazter utzita. Gisako istorioak aurkitzea oso da erraza, baina artzain gehienak ez ziren errotzen! Jean Biscariren istorioa, esaterako, adibide sartu dut, baina ez zen zuzena izango gai horri pisu handiagoa ematea. Edota Surprise Valley-n hil zituzten hiru euskaldunen historia azpimarratzea. Horri buruz ere informazio mordo dago, erraza zitzaidan berrogei orrialde betetzea. Oso gai gustagarria, sentsazionalista da, baina kasu isolatua izan zen. Ez da zilegi horretaz askorik jardutea. William Douglasssek eta Jon Bilbaok ere, *Amerikanuak*

liburuan, bi esalditan laburtu zuten gertakaria. Gai bakoitzari zer pisu eman erabaki behar izan dut, ondorengo irudi globala, mosaikoa, errealitateari zegokiona izan zedin.

Izotz mendi osoa ekarri duzu liburura, edo ice-bergaren alderdi ageria besterik ez?

Mendi osoa eskaintzen saiatu naiz, baina horrek ez du esan nahi liburuan dena sartu dudarik, hautaketa lana egin dut-eta. Benetako testuak eskaintzen ahalegindu naiz, eta, horrekin batera, balio literario handienekoa, narratiborik biribilenak, bertsozko ederrenak... Liburuaren egitura erabaki ondoren, testigantzarik onenekin osatu nahi izan dut atal bakoitza.



Robert Laxaltek 1966an National Geographic-en *Basque Shepherders* artikuluan, bere guraso eta arbasoak gogoan, idatzi zuen: "Gure historian jokatu duten papera jaso gabe geratu da ia". Zer esango zenioke gure Laxalt idazleari?

Lehenengo, eskerrak emango nizkioke berak horrenbeste jasotzeagatik. Hango historia liburuetan askotan aipatzen dira euskaldunak, baina, dudarik gabe, meriturik handiena, lanik handiena Robert Laxalti zor diogu. William Douglasssek esaten duen moduan, Laxaltek soslaia eman zion euskaldunari, identifikagarri egin zuen gainerako talde etnikoen artean, historia bat eman zion, marko osoa. Laxalten *Sweet Promised Land*-ek [Dominique, artzain xiberoatar bat Nevadan euskarazko itzulpenean] garrantzi handia izan zuen euskaldunek beren burua ezagutzera emateko Estatu Batuetako gizartean. Eta hango euskaldun askok beren historia ikusi zuten Dominique Laxalten historian... Baina zure galderak badu bere atzea ere: hango historia jaso ote den, hori da galderaren alde bat, eta bestea, berriz, ea hango hemen jasoa geratu den. Uste dut alde horretatik han ahalegin handiagoa egin dela hemen baino. Hemen jende gehienak bizpahiru estereotipo ditu bere buruan: euskalduna artzain joan zela, diru egitera joan zela eta errepublikarra izan dela han. Hori, iraganari begira. Gaur egungoei, berriz, harrokeriaz begiratzen diegula iruditzen zait, beren identitateari eusteko egiten dituzten ahaleginak behar bezala aintzat hartu gabe, ahalegin horiek adierazpen folklorikotzat hartuz. Hango askori entzun diot, bestalde, hona etorri eta bigarren mailako euskalduntzat hartzen ote ditugun... Hori aldatzen hasteko garaia da, hango euskaldunei buruzko irudi zehatzagoa egiten hastea komeni da. *Sweet Promised Land* hemengo eskoletan irakurriko balitz, hain liburu ederra... Hura irakurtzea nahikoa da hango euskaldunari buruzko ikuspegi murrizta aldatzeko.

Liburuaren amaieran, hango eta hemengo munduen artean zubiak eraiki beharraz ari zara.

Uste dut liburu honetan mundu bat dagoela. Asko poztuko nintzateke liburuak mundu hori azalera ekartzen lagunduko balu. Zubiak egin? Ahalegin asko egin da, jende asko ari da zubiak eraikitzen, eta nirea ahalegin bat da, beste bat.

Bildutako testuen artean, dokumentu historiko, bertso eta askotariko paper eta agiri ditugu. Liburuaren amaieran, berriz, bidaia bat dugu, zeuek egin zenutena, Boisetik Renora Jordan Valley eta McDermitt barrena, bederatzi bat orduko bidea autoz.



Kostatu zitzaigun bidaia hori egitea ere! Nik hainbat kontakizun eta historia gertatu zireneko lekuak ikusi nahi nituen. Hala ere, jendeak, “Ez zaitezte joan, han ez dago ezer!”... Baina joan ginen, eta pozik nago joan ginelako. Ematen du hango euskaldunak garai bateko abegikortasuna gorde duela, nola hartzen dituen euskaldunak! Hala ere, nik liburu honetan iragana erakusten dut. Epilogoan bidaia hori kontatzen dut, eta aurrez San Franziskon, Chinon eta beste zenbait lekutan ere izan nintzen, baina ez naiz mundu horretan sartu, edo ez dut liburu honetara ekarri. Gaur egun gauzak nola diren ere interesatzen zait, baina ez da liburu honen gaia.

Dokumentu idatzien bidez osatu duzun argazkia eta batetik bestera, lekuan-lekuan egin dituzun bidaietan ikusitakoa bat datoz?

Garaiak asko aldatu dira. Gaur egungo euskal-amerikarengan ikusi dut nor direla, ez daudela guri begira. Atxikimendu handia sentitzen dute honekiko, baina euskaldun izateko beren modua topatu dute, eta ez da gurea. Mundu horretan, hizkuntzak ez du lekurik, ezin du lekurik izan, eta ordainetan, garrantzi handia hartu dute musikak, kantuak, dantzak eta iraganak. Horrek beren nortasunari eusten laguntzen die eta, hori ez

“Gai bakoitzari zer pisu eman erabaki behar izan dut, ondorengo irudi globala, mosaikoa, errealitateari zegokiona izan zedin”

ezik, besteen aurrean euskaldun agertzen. Beraiek beste modu batera ulertzen dute identitatea. Guretzat, disjuntiboa da, hau zara, ala beste hura. Haiek, berriz, belaunaldi “marratxodun” bat dira, beste belaunaldi “marratxodun” askoren artean. Beraiek euskal-amerikar direla esango dizute, beste batzuek poloniar-amerikar, txinatar-amerikar edo dena delakoa direla dioten bezala. Identitatea beste modu batera planteatzen dugu haiek eta guk.

Euskaraz argitaratu da *Far West*... Eta ingelesez?

Reno-Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroaren proposamena jaso dut eta gustura naiz. Azken finean, liburuan ageri den mundua errealitateari dagokion edo ez, hango jendeak, edo han egondakoak, esan lezake ongien... Hala ere, nik ez dut jardun mundu hari buruzko datuak edo informazioa ematen, mundu horren atzean ezkutatzen den poesia agerian uzten baizik. Poesia hori gutxien uste denean azaltzen da. Artzain bati egindako galdera datorkit burura: “Zer zen onena Ameriketako artzain zenbiltzala?” Eta gizonaren erantzuna: “Onena? Fuerte kantatu eta nire ahotsaren oihartzuna entzutea!”. Ez da erantzun makala. ■


Naiurobitarra ^{rekin} bidaia jolas

"Naiurobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:
-15%

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bota dadoa
eta ekin bidaiari.



8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

 argia

Literatura

Luther Blissett-en *Q*

Nobela historikoz mozorrotutako iraultza

Azkeneko Durangoko Azokak hoberen gorde duen sekretua izan da, agian. Ez du argialetxe nagusietako batek atera, eta aurkezpena ere Azokaren ondoren, 2010ean sartuta egin dute. Baina ez da pasatzen uzteko moduko liburua. Luther Blissett-en *Q* nobelaz (Ekoizpen Galduak, 2009) ari gara.

GORKA BEREZIARTUA

NOR DEN LUTHER BLISSETT eta zer den nobela hau, grosso modo azaldu genuen aldizkari honetan duela zenbait denbora (2.115. zenbakian). Laburbiltzeko: Blissett ez da idazle bakarra, lau baizik; gerora Wu Ming kolektiboa osatu zuten berberak; eta liburu honetako istorioak XVI. mendeko Alemanian kokatzen gaitu, erreforma protestanteen eltzeta lehertu den momentuan. Izenik ez duen protagonista identitatez aldatzen ibiliko da etengabe, Europa erdia iraultzaz-iraultza zeharkatu bitartean. Atzetik, *Q* dauka, Giovanni Pietro Carafa kardinalaren espia, atzaparra gainean noiz jarriko.

Nobela historikoa ala saiakera politikoa? Detektibe-eleberria ala abenturazkoa? Dena batera, akaso? Arrunt zaila da sailkatzen: egileek *—bontade* betean— “bizirauteko abilezien eskuliburu” gisa definitu zuten *Q*. Baina irakurketa “politikoagoak” egiteko tentazioa beti dago hor: XVI. mendeko gertakariak Mendebaldeko gizartearen azken 50 urtekoekin erkatzeko gogoia. Eta betaurreko horiekin irakurrita, liburuak azken hamarkadetako ezkeraren gorabeherak islatzen dituela esatea ere, ez litzateke urrunegi joatea.

Gehitu horri, ezkerretik kontatuta egon arren, liburuak kanpotik eman dezakeen inpresioa: askotxo, lar eta gehiegi saltzen diren nobela historiko horietako batekin nahasten ahal da hasieran, eta gero, atzeko eduki ideologikoari esker, produktua sorpresibo bilakatu. Azken finean, pertsonaia gehienak benetan existitutakoak dira, ondo dokumentatutako lana da, eta *—itxuraz—*

Behean,
Q eleberriaren
euskal
edizioaren
azala.
Luther Blissett
kolektiboaren
espirituari
jarraituz,
itzultzaileak
Noor Daki
izenarekin
sinatu du.


artifizio gehiegirik gabe kontatua. “Nobelak irakurtzearekin batera historia kontuak ikasten ditut” esango lukeen irakurlea erakartzeko modukoa, alegia. Eta erakartzea lortu duena, ederki saldu baita mundu osoan.

Epika Italiar Berria

Edo New Italian Epic. Ingeleseko izen horren barruan leudeke, Wu Mingeko kide baten arabera, azken urteetan Italian arrakasta handiena izan duten eleberriak *—gero nazioartera eltxoak bezala zabaltzen direnak—*. *Q*-z gain, Giancarlo de Cataldoren *Romanzo criminale* eta Roberto Savianoren *Gomorra* leudeke zerrendan, besteren artean. Sailkapen horren aldekoek argudiatzen dutenez, liburuok badituzte puntu komun batzuk: idazkera ironiko eta hotzari muzin egitea;

konplexutasun narratiboa pop jarrerarekin uztartzea; ukronia potentzialak idaztea; “ikusuntu zehharra”... 2008an atera zen plazara izendapena eta, irten bazuen, irten zuen: elkarrekin sendalaian dabilta geroztik Italiako literaturzale erdiak *—tira, esateko modu bat da—*.

Edonola, eztabaida kritikoez gain Wu Ming kolektiboak lanean jarraitu du eta 2009aren amaieran *Q*ren sekuela argitaratu dute, *Altai*. Terapia modura idatzi dute, lehen nobela argitaratu eta hamar urtera taldekide batek proiektua uztea erabaki ostean. Espero dezagun, jarraipen horrek merezi badu, argialetxeren batek apustua lehentxeago egin eta euskarara itzultzea. ■



Publizitatea

Salda balego!

Jende jatorra franko bizi da gure auzoan. Gure teilape berean bada andre bat, negu parteko igande gehienetan salda, benetakoa, ematen diguna (ez pentsa, gero, horregatik bakarrik denik jatorra). Andreak ez daki euskaraz, eta honako modu aski bitxi honetan iragartzen digu, interfonotik, salda bila jaitsi gaitezkeela: “Hoy hay salda badago”.

JOXERRA GARZIA

**Zeinen gutxi gizendu duen
publizitateak euskararen
salda! Balantzea egiten hasita,
nago ez ote dion onura baino
kalte gehiago egin**

BESTERIK GABEKO pasadizo xelebre bat izango da akaso, baina niri, gure auzoaren alderantzizko *abrukadabra* hori entzuten dudan aldiro, mirari txiki bat iruditzen zait. Nola liteke erdaldun bati beteago, kargatuago —eta, beraz, egokiago— gertatzea *salda badago* haren erdal ordaina baino?

Galdera erretorikoak dira horiek, hor ez baitago misteriorik. Erabilerak ematen die indarra esapideci, eta, hizkuntza alorrean ere, gauzak ondo egiteak emaitza onak izaten ditu. Gurean, gauzak ondo egitea zera da: euskara benetan axola diguten helburuak lortzeko erabiltzea, eta ez balizko kuota sinboliko bat betetzeko soilik. Tabernari askok eta denek modu berean jarri izan ez balute ohar hori, akabo gure auzoaren euskarazko salda.

Tamalez, gutxi dira horrelako adibideak, eta euskarazko hedabideek badute horretan erantzukizunik. “Salda badago” bezalako esapidetak sortu eta finkatzeko ezin hobea da, esaterako, publikizitatea, eta abantaila nabarmenak ditu hedabideetako beste generoekiko (errepikakorra, gazteen gustukoa...).

Hala ere, zeinen gutxi gizendu duen publikizitateak euskararen salda! Balantzea egiten hasita, nago ez ote dion onura baino kalte gehiago egin. Kalte guztiak ez dira berdin larriak. Larritasunik gutxien, nire ustez, testu nabarmen okerreko iragarkiek dute (*Drogarik gabe atsedenik ez* eta horrelakoek).

Larritasunean koxka bat gorago, gramatikalki zuzenak izanik ere euskal senari iseka egiten diotenak daude, oraintsuko Kaiku esnearen kaikuakeriaren gisakoak; baina horretaz aski hitz egin da hedabideetan, eta nik haxe baizik ez diot erantsiko: bezeroak kaikutzat hartzen dutenek euskararekiko ezjakintasuna erakusten dutela, bai, baina batez ere profesional kaxkarrak direla.

Larritasunaren goren graduan, ordea, zuzen eta jator itxura dutenak daude. Hortxe dago Jaurilaritzak Euskadi saltzeko hautatu duen

claim, eslogan edo lelo berria: *Euskadi, saboréala* / Euskadi, goza ezazu.

Ez niri eskatu gisa horretako elebitasunarekin pozteko. Irakurri ditut lelo berriaren asmatzaileen arrazoiak. Gastronomiaren eremuko aditza erabiltzeak ematen omen dio leloari bere zera. Niri, egia esan, sukalde usain eta guzti arrunt samarra iruditzen zait leloa, baina gazte-lerazkoak badu hori behintzat. Euskarazkoa, aldiz, hortxe dago, ez ur eta ez salda, tokatzen delako edo. Euskaraz dago, eta publikizitatea da, baina hori ez da euskarazko publikizitatea.

Auzoko tabernari jator batek salda izaten du neguan salgai. *Salda badago* txartela, berriz, hantxe dago urte osoan. Hiztun eta ziri zale aparta denez, proposatu diot txartelaren beste aldean *Salda balego!* idazteko, eta alde hori erakusteko saldarik ez denean.

Herri hau benetan normala izan dadin ere, ez da aski “normalduta dago” txartela uneoro erakustea, eta, ikusiak ikusi, nik gure tabernari jatorrari emandako aholku bera emango nieke normaldu nahi gaituztenei. ■



Liburuak

KRITIKA

Urperatze handia.
 Karlos Linazasoro.
 Elkar. 75 orrialde. 9 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Hurrengo geltokia...

“HIRU EGUN jitoan igaro ondoren, naufragoa uharte jendegabetu batera heldu ziren”. Itzulingururik gabeko sarrera zorrotz eta esanguratsu horren bitartez, abiatzen da Karlos Linazasororen azken lana. Zuzenean gertaeren mailan kokatzen gaituen *in media res* gisako hastapen hau, nahikoa izanen da irakurlea kolokan uzteko eta bere atentzioa bereganatzeko. Narratzailearen ahotsak, egoera baten planteamendurako funtsezko koordenadak laburki aurkeztu ondoren, kontakizuna bideratuko duen naufrago robinsoniar berezien arteko elkarrizketa amaigabe bati hasiera emango dio. Hemendik aurrera, narratzailearen interbentzio gehienak unitate kronologikoak markatzera mugatuko dira, gainera, espazioa beti berdina izanik, ipuin luzea izatetik urrundu eta antzerkiari gerturatzen zaion lan baten aurrean gaudela pentsatzera bultzatzen gaitu, egileak berak dioenez “taula baten gainean oso ondo funtzionatuko luke”.

Oporretan daudelarik, atso-agure jubilatu talde baten itsasontzia hondoratu egingo da. Hiru egun noraezean ibili ostean uharte jendegabetu batera iritsiko dira, eta bertatik ihes egin nahian talde antolakuntza planetan dabiltzala, pertsonaien ezintasuna eta ezjakintasuna areagotuko duten galdera bidezko hausnarketetan murgilduko dira: Non gaude? Zer gara? Nondik gatoz? Zer da musu bat? Zer gara itsasoarentzat?...

Hala ere, edo-salbatzen-gara-edo-ez-gara-salbatzen (63. orrialdean) aukera besterik ez duen muturreko egoeran, linazasorotar lirakeen ironia zein umorea bezalako osagaiek lagunduta, galdera existentzialak planteatzeko eremu erabat surrealista topatzen dugu, ezin zelebreago diren pertsonaien eskutik sortua: sasimedi-ku txoriburu bat; filosofo burugabe bat; apaiz bat meza-liburu eta guzti; herren bat, zuria edo urdina den ez dakigun marrazo baten bazka izandakoa, minik ematen ez dion hanka bat falta duena; ehun eta hamasei urteko agure bat; Jason izandako baina bizi berrian Justino izeneko belomarezale txoro bat... eta abar. Hauen eta beste askoren arteko elkarrizketen abiapuntuak logikoa ematen duen arren, inkomunikazioa eta aldrebeskeria da nagusi, pertsonaia bakoitzak bere zoroa bizi baitu. Salbatuak nahi izatearen intentzioa, sekula aurrera eramaten ez den zerbait bilakatzen da, inoiz materializatzen ez den itxaronaldi absurdua bezala, Beckett-en *En attendant Godot* (1952) gogora ekartzearen. Beckett-en lanean, Godot izeneko izakiarenganako itxaronaldiak justifikatzen du beste bi gizakumeen existentzia. Hemen berriz, Linazasorok dioenez, “90 urtetik gora, 100 urtetik gora bizi eta gero, bizitzan zer leku duten galdetzen dute pertsonaiek”. ■



Neguko jai eta tradizioak bideo-liburuan

Euskomedia Fundazioak eta Eusko Ikaskuntzak argitaratu dute *Negua ospatuz* izeneko liburua. Obra honen bidez Euskal Herrian neguan izaten diren jaien eta tradizioen berri eman nahi izan dute Antxon Aguirre Sorondok eta Juan Aguirrek. Baina, egileek dioten moduan, ohitura horien deskribapen hutsa egitea ez litzateke orain arte daki-gunetik harago helduko. Horregatik, liburua ez ezik, DVDa ere kaleratu dute, liburuaren azal barnean datorrena. Kalitate handiko irudiak jaso dituzte, eta horiek




Negua ospatuz.
 Antxon Aguirre /
 Juan Aguirre.
 Euskomedia /
 Eusko Ikaskuntza.
 129 orrialde.
 35 euro.

abiapuntu gisa hartuta, zenbait gako eskaini dituzte. Horri esker ulertuko dugu nola, noiz eta zergatik egiten diren zenbait neguko ospakizun. ■

Clara Campoamorri buruz, haurrentzat


Txertoa argitaletxeak bederatzi eta hamabi urte bitarteko haurrentzat zuzenduriko *Nor da?* sailean argitaratu du Clara Campoamorri buruzko liburu hau. Victor Vilardell Balaschek izkiriaturia, Martin Ansok euskaratua, Campoamorren bizitza kontatzen du Anek bere ikaskideekin Madrilera egiten duen bidaiaren bitartez. Hara iristean ezagutuko du protagonistak nor izan zen Campoamor: Margarita Nelken eta Victoria Kentekin batera, Espainiako Errepublikako Parlamenturako hautatu zuten lehen emakumea izan zen. Garaiko gorabehera guztietan egon zen, atzerriara joan behar izan zuen eta Suitzian hil zen 84 urterekin. Liburua ilustrazioz jantzita dator, baita edukiei buruzko ariketaz ere. ■



Clara Campoamor,
 emakumeen eskubideen
 defentsan.
 Victor Vilardell Balasch.
 Txertoa.
 123 orrialde. 9,95 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Begi berriak atzo gaueko irudientzat. Kemen Lertxundi. Gaztelupeko Hotsak. Iraupena: 45'06". 10 euro.

Kantu xumeak talde soinu ondo borobilduta

ONDARROAR hau poeta eta idazletzat neukan orain arte, baina abeslari eta gitarra jotzaile fina ere badela egiaztatu dit, nahiz eta berak ezetz uste. Talde batekin inguratuta eta talde soinu lortuta, aurreikusitakoa baino tristura txikiagoa –justua– duen lana da, eta soinu oso zaindua duena. Pop-rockaren eta AEBetako folkaren (ez olatu berrikoa) artean koka dezakegu eta uneren batean badirudi Dylan ate joka dagoela, baina tarteka

Anariren antzeko tempo barnerakoiak (*Larrosak eta harriak* eta *Bidertzeko hostoak*) eta Ruper Ordorikaren antzeko giro eta moldaketak ere lortu ditu (*Gaur gauez* eta *Katoik baltzena*), besteak beste. Are gehiago, teklatuak, biolinak, biolontxeloak eta Lizar Gojenolaren gitarra rockero eta blueseroek bestelako koloreak ematen dizkiete Lertxundiren testu ederrei.

www.myspace.com/kemenlertxundi

Kemen Lertxundi

«Bakoitzak bere erlijioa dauka eta niretzat Dylan jainkoa da; bere sinpletasunak txunditzen nau»

Zergatik berreskuratu duzu *Charlie Rivel*? “Begi berriekin ikusten dituzu atzoko” kantak?

Kanta hori kontzertuetan moldatzen eta hazten joan da, eta pena ematen zidan ordurako hartu zuen trazarekin inon ez grabatzeak, horregatik berreskuratu nuen. Bestalde, diskoaren izenaren jatorria da abestiak erdi eginak nituela, baina kontzertuak egin ahala aurrera begira ikusten nituela. Riveli dagokionez, tristuratik barre bat derrigorrez markatu behar izatea sujeritzen dit, irudi dekadente hori.

“Garestitxo saltzen da hemen errespetua”. Lortu duzu zure lekua musikari moduan?

Egia esanda, ez dut nire burua ez idazle ez musikari ikusten. Zortea eduki dut norbaitek egiten dudana gustuko duelako. Nire musika gustuko badute, ondo; baina entzu-

lerik izango ez banu ere, ondo. Izan ere, batez ere niretzat jotzen dut, plazer handiena etxeko egongelan gitarra jotzen aritu eta zerbait ateratzea da. Kontzertuetan ez naiz hain gustura gelditzen.


“Bixkat gexa matxe zatzut / Lue neurot zeure ondun”. Euskara batuak lor dezake halako goxotasunik?

Askotan esaten da Ondarroako euskara oso zakarra dela, baina

nire ustez bestelako hurbiltasuna dauka. Ama hizkuntza ondarruera daukat, baina ez gaude ohituta hala idazten ezta abesten, eta *handicap* handia da. Normalean konposatzerakoan euskara batura pasatzen naiz, baina inoiz lelo bat ondarrueraz irten zait, eta tirakatiraka... Poztasun handia da niretzat horrela ateratzea, nahiz eta zaila izan.

Kanta batzuek Dylan eta Palace-en antzinako folk amerikarra gogora ekartzen didate...

Bakoitzak bere erlijioa dauka eta niretzat Dylan jainkoa da deskubritu nuenetik. Ahots ona dauka? Gitarra eta armonika ondo jotzen ditu? Seguruenik ez, baina bi akorderekin abesti zoragarriak egiten ditu. Sinpletasun horrek txunditzen nau eta saiatzen naiz lortzen, baina ez da erraza. ■



Ezpalak

JON TORNER

Hilaren 19an hasiko da Arabako Kuadrila Arteko Bertso Txapelketa

ARABAKO banakako bertso txapelketa bi urtean behin egiten denez, tarteko urteetan kuadrila edo eskualde arteko txapelketa antolatuko dute. Banakakoan sekula parte hartuko ez luketen bertsolariak erakartzeaz gain, bertso eskolak indartzea eta herri eta eskualdeak aktibatzea dira egitasmo berriaren helburuetako batzuk. Hiru liga ezberdinetan banatutako bederatzita taldek parte hartuko dute txapelketan, otsailaren 19an hasita. Finala maiatzaren 8an izango da Gasteizko Auzolana pilotalekuan. Parte hartzaileei buruzko informazio gehiago eta egitarau osoa Bertsoa.com webguneko *Albisteak* atalean kontsulta daitezke (2010-02-08 datarekin).

Ezker Batuaren webgune berria: “Zer gura dozu Urdaibain?”



EZKER BATUA-BERDEAK alderdiak foro berria jarri du abian Interneten (<http://urdaibaibai.wordpress.com>). Urdaibaiko Guggenheim museoaren proiektuari buruz herritarrek dituzten iritzia jaso-tzea du helburu. Proiektuaren inguruko albiste eta erreportajeak ere bilduko dituzte webgune horretan. Facebook-en bada plataforma bat, “Urdaibaitez! Gure kulturaren eta naturaren defentsan” izeneko, 900 jarraitzaile baino gehiago dituena.

tuaren inguruko albiste eta erreportajeak ere bilduko dituzte webgune horretan. Facebook-en bada plataforma bat, “Urdaibaitez! Gure kulturaren eta naturaren defentsan” izeneko, 900 jarraitzaile baino gehiago dituena.

Ander Iturriotz

idazle eta soziologo ordiziarra da Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari berria, elkarteak hilaren 6an Irurtzunen (Nafarroa) egindako batzar nagusian



ANDONI CANELADA / A. P.

adostu ostean. Postu horretara aurkeztutako kide bakarra izan zen, eta Fito Rodriguezek utzitako kargua hartuko du. Berarekin batera Castilo Suarez, Aitor Txarterina, Juan Mari Apaolaza, Carmen Valois, Josu Martinez eta Iñaki Frieria idazleak kide izango ditu Zuzendaritza Batzordean.

Francis Xavier Pasionen

Jay filmak jaso du Zinegoak jaialdiko fikziozko lanik onenaren saria, Filipinetako gizartean emeki jazotzen ari diren aldaketak “buruargitasunez” erakusteagatik. Film dokumental onenaren saria, berriz, Yulene Olaizola-laren *Intimidaciones de Shakespeare y Victor Hugo* lanak jaso du eta film laburrik onenarena, Bardi Gudmundssonen *Mama Veit Hayo Hun Syngur*-ek. Les-bianismo saria, bestalde, Nana Neulen *Mein Freund aus Faro*-ri eman diote.


Karlos Linazasoro

idazle gipuzkoarrak 400 aforismo edo gogoeta labur jaso ditu *Esan gabe doa* (Utriusque Vasconiae) liburuan. Hirugarren aforismo liburua du. Aurrenekoa, *Isiltasunaren adabakiak* (Pamiela), 2003an plazaratu zuen; bigarrena, *Beti eder dena* (Erein), 2006an

● **Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariak *El Diario Vasco* egunkarian:** «Bertsolaria da bere publikoarentzat eskuragarrien dagoen artista; nahi duenak lor dezake gure telefonoa eta deitu edo saio bat proposatzeko edo bertsoak eskatzeko... Zein dira elitea? Gehien dabilzanak? Iker Zubeldiak finalistek adina saio egingo ditu, eta haiekin batera. Egaña da elitea? Eliteko saskibaloi talde bat ez da etorriko Gabiriko plazara; Egaña bai. Izarra zein da, Maialen? Beraxeek jango ditu aurten marroi gehien, bera izango da debaldeko saio gehien egingo dituen, edozein hasiberri bezain eskuragarri dago eta... Gailurra BEC kontsideratzen badugu, nik han ez nuen izarrik ikusi, han ekipo bat ari zen lehiatzen, eta ekipo irudia eman zuten, horrelaxe jarduten direlako, ekipoan».

● Alberto Schommer argazkilaria *hitzak jaso* ditu **Berriak:**

«Artea ez dago munduan gertatzen diren gauzetatik aparte. (...) Horregatik, min egiten didate zenbait gertakari. Gauzak bestela joatea beharko nuke. Eta bestela joango balira, artea bera ere oso bestela joango litzateke. (...) Zerbait eraikitzea da nire helburua, eta horretarako zenbait gauza suntsitzen ditut, eta beste batzuk sortu. Pertsonen eta eraikinen zirrikituak bilatzen ditut, betiere komunikazioa lortzeko asmoz. Aurrena neure buruarekin; eta ondoren, gainerakoeekin».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

Estilo aniztasuna galbide

Corto Cuentos

Borja Crespo / Chema García

Astiberri - 2009

128 orrialde, koloretan. 17 euro

<http://corto-cuentos.blogspot.com>



GETXOKO Komiki eta Manga Azokan erosi zuen nire lagunak *Corto Cuentos* liburua, Astiberri argitaletxearen estandean. Komikiak atsegin ditu, baina ez da ohiko irakurlea. Gehiago gustatzen zaizkio argazki, koadro eta marrazki koloretsuak. Horregatik erosi zuen *Corto Cuentos*, Chema Garcíaren irudiek erakarri zutelako.

Arrazoi eman nion, ilustrazioak ederrak dira, batzuetan xalo baina oro har ederrak. Sentsazioa dut, ordea, edertasun horrek harreman handiagoa duela estilo aniztasunarekin, irudien kalitate grafikoarekin baino. Garciak estilo ugari erabili ditu; marrazkiak artista desberdinek egin dituztela dirudi, eta irakurleak atseginez hartzen ditu ezuste estetiko horiek, irakurle mota batek bederen.

Komikizale bezala, liburuak apur bat deskolokatu nau: Ez dakit zein publikori zuzenduta dagoen. Umeei? Helduei? Borja Cresporen ipuin batzuek hausnarketarako bide ematen dute, baina beste zenbait istorio motz antzean geratzen dira, lotarako orduan seme-alaba txikiei kontatzeko ipuinak balira bezala. Bakarren batek esango du istorio horiek ere bigarren irakurketa bat dutela, poesia direla. Ez dakit zer esan.

Gainera, lauzpabost esaldiko ipuinetan, marrazkiek protagonismo handia hartzen dute. Izugarri ilustrazio politak balira, tira, baina kasu honetan... Aizu, duela gutxi irudiak ederrak direla esan duzu, ezta? Bai, egia da, liburuan badaude *koadro* politak, begien gozagarri izan daitezkeenak, baina osotasunean... oso ongi nola definitu ez dakidan zerbait falta da.

Hori bai, Chema Garcíaren marrazkiek txukun bat egiten dute Borja Cresporen istorio laburrekin, "bat egin" baino, zenbaitetan "jan egin" zuzenagoa litzatekeen arren. Dioguna, baleko komikia da –estetikoki behintzat–, baina nortasun sendoagoa emango lioketen elementuak falta zaizkio, irakurleak galdurik ez sentitzeko bereziki.



NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

10

www.nafarroakotxapelketa.com



Finalaurrekoak:

Otsailaren 20an

ETXARRI ARANAZko

Kultur Etxean

17:30ean

Julio Soto

Ander Fuentes "Itturri"

Estitxu Arozena

Xabier Terreros

Oskar Estanga

Saioa Alkaiza

Nafarroako

Bertsotze

Elkartea



Laguntzailea:




argia

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Doministiku. Natura. 2. Denda batez arduratzen dena. Idi, hitz elkarketan.
3. Konparazio atzizkia. Laino. 4. Zamak altxatzeko makina. Bigarren urtaroa.
5. Ustekabea, harrimena adierazteko interjekzioa. Aurka. Baso. 6. Biloak. Olioiz igurtzi.
7. Iruzur. Kausazko. 8. Anaia. Hotsak ozenago entzuteko erabiltzen den tresna.

Goitik behera:

1. Udazken. 2. Lerden, lirain. 3. Norbait. Euskal Telebista. 4. Neodimioaren sinboloa. Nardo. 5. **Argazkian**. 6. Mespretxuzko hitz. Niobioaren sinboloa.
7. Hitz ematea. Talka, topekada. 8. Txantxetan, burlaka. 9. Distira, dirdira.
10. Arnas ezak hila. Nafarroako udalerrria. 11. Txakur. 12. Helburua, xedea.
13. Lehen zatia egin. 14. Zati, puska. 15. Baliorik gabe.

Sudokuak

Erraza

4				7	3		
			1		5	2	7
			6			8	
	5			8			2
			4		6		
3				2		9	
	9				1		
1	4	8			2		
		3	8				9

Zaila

	4		5	3			7
		5					
		3			1		2
	1				4		3
	8	4	6		3	5	9
	7		1				2
4			2			6	
						2	
9				6	5		1

Soluzioak

Erraza

9	6	3	2	1	7	4	2	5	8	6	9	7
1	4	8	9	5	3	2	6	7	5			
8	7	9	2	5	6	1	4	3	8			
6	9	4	7	2	5	8	9	6				
3	1	1	4	7	2	5	8	9	6			
8	2	6	4	1	6	7	5	3				
6	5	7	3	8	9	1	4	2				
2	7	1	6	5	3	9	8	4				
9	3	6	1	4	8	5	2	7				
4	8	5	2	9	7	3	6	1				

Zaila

8	9	2	7	4	6	5	3	1				
6	5	8	3	1	7	2	4	9				
4	3	1	2	9	8	6	7	5				
2	8	4	6	7	3	5	9	1				
5	1	9	8	2	4	7	3	6				
7	6	3	9	8	1	4	5	2				
8	9	5	7	4	2	1	6	3				
1	4	2	5	3	6	9	8	7				

Ezker-eskuin: 1. Usin. Izadi. 2. Dendari. It.
3. Ago. Lanbro. 4. Garabi. Uda. 5. Oi.
Kontra. Oihuan. 6. Ilak. Oihoztan. 7.
Tranpa. Kausa. 8. Neba. Bozgorritu.
Goitik behera: 1. Udagotien. 2. Segail.
3. Inor. ETL. 4. Nd. Akara. 5. Alboka.
6. Iran. Nb. 7. Zin. Topo. 8. Burtaz.
9. Dirdi. 10. Itoa. Oka. 11. Ozar. 12. Ina.
13. Hasi. 14. Ahal. 15. Nulu.

Hil eta gero, salda bero!

Urrezko ezteiak ospatu eta hila-
betera hil zen Maritxu. Eta
handik aste gutxira, berriz,
Migel, haren senarra.



Zerura iritsitakoan Migel
emaztearen bila hasi zen,
batera eta bestera. Halako
batean, urrutira ikusi eta pozez
zorutzen, abiada bizian korrika
hurbildu zitzaion:

– Maritxu maitea! Hau poza!
Beldur nintzen ez zintudala
sekula gehiago ikusiko!

Eta Maritxuk, arbuioz begira-
tuz:

– Zer ordea, Migel! Zertan
zabiltza? Tratua oso garbia izan
zen, edo ez al zara gogoratzen?
“HERIOTZAK BANAN-
TZEN ZAITUZTEN
ARTE!”.



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan



*Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetu zaitez:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

 **argia.com**



Osasuna

JABIER AGIRRE

Ubelduak beren kasa agertzen badira

HAINBAT KASUTAN, ubelduak magia kontua balira agertzen dira larruazalean, horrelakorik justifikatuko lukeen ageriko arrazoirik gabe. Ubelduak odol-hodirik txikienetako odolak "gainezka" egin eta inguruko ehunak blaitzen dituenen azaltzen dira begi-bistan. Normalean kolpe, eroriko edo injekzio baten ondoren azaltzen direnez, ez diegu aparteko garrantzirik ematen, egun batzuen buruan desagertu egiten direlako. Baina igurtzirik txikienaren ostan ubelduren bat sortzen bada, edota ubelduak oso handiak badira, medikuarengana joatea komeni zaizu, sintoma horren azpian hainbat trastorno egon daitezke eta. Medikuek ondorengo egoerak hartuko ditu kontuan, diagnostiko diferentziala egiten saiatzeko:

Kapilarren hauskortasuna. C bitamina faltak edo gaizki kontrolatutako diabetes batek odol-kapilarrak oso erraz haustea eragiten dute. Kapilar horiek indartu eta sendotzeko flabonoide asko dituzten jakiak hartzea komeni da, esaterako, marrubiak, espinakak eta ahabiak bezalakoak, osorik edo zukuan.

K bitaminaren falta. Zereal integraletan eta hosto berdeko ia berazki guztietan agertzen denez, K bitaminaren defizita ez da batere arrunta. Baina antibiotikoak denbora luzean hartzen badira, hesteak ezin du odolaren koagulaziorako ezinbestekoa den nutriente hori behar bezala xurgatu.

Infekzioak. Birusek eragindako infekzioek koagulazio-mekanismoak



WWW.INDYMEDIA.IE

nahasten dituzte batzuetan. Bakterioengatiko infekzioak –meningitisa, esaterako– petekia izeneko ubelune txikiekin agertzen dira sarritan.

Alergiak. Larruazaleko erreakzio alergikoetan ere errazagoa da hematoma edo ubelduak sortzea.

Plaketen eskasia. Gaixotasun autoimmuneek edo leuzemia bezalako gaitz larriek plaketa kopurua asko jaisten dute odolean. Eta plaketa ezinbestekoak direnez odoljarioak geratzeko, plaketa gutxi egoteak hematoma ekar ditzake.

D bitaminak lagundu diezaguke sobera ditugun kiloak galtzen?

Edo beste era batera esanda, behar baino D bitamina gutxiago edukitzeak oztopatu al ditzaizke gure argaltzeko ahaleginak? Hori izan liteke AEBetako unibertsitate batean egindako ikerketa baten ondorio nagusia. Hala ere, ikertzaileek ohartarazi dute azterketaren emaitzak, momentuz, estatistika hutsean oinarrituta daudela. Ez dute oraindik frogatu D bitaminaren eta pisu galeraren arteko harreman zuzena dagoenik. <http://ttiki.com/10179> (Gaztelaniaz)

Zahartze biologikoari lotutako lehenengo aldagai genetikoak aurkitu dute

Giza genomaren 500.000 aldagai aztertu ostean, Britainia Handiko zientzialari talde batek, lehen aldiz, aurkitu egin du gizon-emakumeon zahartze biologikoarekin zerikusia daukan barietate genetiko bat. <http://ttiki.com/10180> (Gaztelaniaz)

Onddo batetik ateratako botika minbiziaren aurka nola erabili aztertzen ari dira

Nottinghameko Unibertsitatean, Britainia Handian, txinatar medikuntzan aspalditik erabili izan zen onddo bat aztertzen ari dira, minbiziari aurre egiteko baliagarria izan daitekeelakoan. <http://ttiki.com/10181> (Frantsesez)

Unai Brea

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Etixeroko txerrena

BETAURREAN DUZUN seiehun eta hirurogeitaseigarrenerako prest jarri eta zeri heldu? Presbiteroaren bidezidorra baino egokiagorik... Eta Narbartekeo erretore zenarenetik abiatu naiz.

Haritzarenaren tankerako hostoa du berarakiak. Izen honekin jaso zuen *Eruca Sativa* landarea Lakoizketak bere 1888ko hiztegi itzelean. Gaur egun *Eruca Vesicaria* subsp *Sativa* bezala ezagutzen dugu. *Eruca* landarearen latinezko izena da eta zorten edo gara motza adierazten du, *vesicaria* hitzak bixika edo maskuri antzekoa, fruituen itxuragatik, eta *sativa* hitzak landatutakoa dela dio.

Berarakia izen xelebrea eskorbutoari aurre egiteko bere gaitasunari zor zaiola dio apaizak. Lan horixe egiten duen C bitamina ugari duela badakigu gaur egun. Era berean latineko *Eruca* izenari beste jatorri bitxi bat aitortzen dio: “uro is”-etik omen dator, erre aditzetik, alegia. Landare hau ia beti gordinik jaten da, entsaladetan gehienetan, eta haren hostoak eta haziak biziak, kitzikatzaileak eta bero-tzaileak dira. Horra eliztarren txerrena. Esaerak dio etxero dela txerren bat...

Berarakia belarra da eta Mediterraneoaren bueltan aspaldi jan ohi dute. Landare guztien antzera, lehen basatiak jaten baziren ere oraingoak baratzetan hazi-

takoak dira. Baratzazter batean lurra erabat berotu aurretik behin ereinez gero, hosto puntta-berriak kenduz uzta etengabe-koa izango da, baldin eta tar-teko landare batzuk lora-tzen utzi eta

haziak bertan erortzeraino bakean uzten badira. Aipatutako itsasoaren inguruko kulturetan era askotara baina gordinik jaten bada ere, Indian haren hazien olio darabilte. Senide duen *Brassica napus* var *Oleifera*, olio-arbiarenaren edo koltzarenaren tankerako olio hau afrodisiako latza omen da. Bixigarriak, beroak, kitzikatzaileak, minak, piperdunak eta mikatzak diren jaki guztien eran osasungarria da oso. Demonio deabru bihurri alena!

Baten batek beharki ere deitzen duen landaretxo honek nahikoa beharki ematen du...



Eruca sativa, berarakia.

WWW.HALLANDBOTAN.ORG



MIGUEL ANGEL SALAMAN

50

Zein da azken 50 urtetan bere mozkinak gehien hazi arazi dizkiogun landarea?

1960 eta 2010 urteen artean etekinak gehien handitu zaizkion landarea artoa da (*Zea mays*), asko hazi diren soia, garia eta alpapa edo luzerna baino nabarmen gehiago. Galdera bat: 1960an batez besteko etekina hektareako 5.460 kilo arto bazen, eta batez besteko urteroko hazkundea %1,9 izan bada, 2009. urtean zenbat kilo eman ditu hektarea horrek?

Barietate aukeraketa egokiari eta aurrerapen bioteknologikoei dagokie, nonbait, hazkundea.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Kraso suhiltzaile (eta piztaile)

ERROMA, K.A. I. MENDEA. Marko Lizinio Krasok Erromako lehen suhiltzaile zerbitzua antolatu zuen. Dokumentatuta dagoen historiako lehen suhiltzaile zerbitzua, hain zuzen. Kraso aristokrata, militar eta politikari ezaguna eta Erromako gizonik aberatsenetakoa zen, eta, hiriko boterea eskuratzearen, Julio Zesarrekin eta Kneo Pompeio Magno-ekin batera Lehen Triumviratua osatu zuen.

Krasok suhiltzaile zerbitzua erromatarren ongizateak kezkatuta antolatu zuela uste duena oker dago, ordea. Sua itzaltzea negozio biribila bihurtu zuen. Su hartutako eraikinen edo lur eremuen jabeek baldintza bat jartzen zien, bere agindutara zeuden suhiltzaileak lanean hasi baino lehen: jabegoa Krasori oso merke salduko zioten, sua itzaltzea nahi bazuten. Hala, jabeek etxea edo lurra sutan galtzea ala Krasok eskaintzen zien miseria hartzea aukeratu behar zuten eta gehienek suhiltzaile buruaren zikoizkeriari men egitea beste erremediorik ez zuten.

Zerbitzua pribatua zen, baina Krasok jarduera horretan aritzeko lizentzia eskusiban zeukan. Eta erromatar estatuak ederki ordaintzen zuen haren zerbitzuak kontratatzeko. Baina estatuaren ordainsaria eta jabeek egiten zien xantaia nahikoa ez, eta negozioa sendotzea erabaki zuen. Suhiltzaileek beti lana izango zutela ziurtatzeko suteak eragiten hasi zen. Horrenbestez, lehenengo suhiltzaile zerbitzua sortu ez ezik, lehen supiztaile brigadak ere antolatu zituen Marko Lizinio Krasok.



WWW.WIKIMEDIA.ORG

Marko Lizinio Krasok (K.a. 115-53) historiako lehen suhiltzaile zerbitzu antolatua sortu zuen, Erromako hiritarren hobe beharrez baino, bere ondasunak handitzeko. Argazkian, Krasoren burua Parisko Louvre museoan.

Zuhurkeriak ez zion arazo handirik ekarri politikariari; alderantziz, konponbide ere izan zuen behin. Birjina vestale batekin sexu harremanak izateagatik auzipetu zuten. Krimen izugarria zen hura erromatar gizartean, baina bere argudioari esker zigorra saihestea lortu zuen Krasok. Auzitegiko epaileek halako bekak zergatik egin ote zuen galdetu ziotenean, Marko Liziniok erantzun zuen vestalea familia aberats bateko oinordekoa zela eta ondasunak kentzeko oheratu zela harekin. Epaileek, ezinbestean, sinistu egin zioten.

Arrastoak

Errepide maparik zaharrena 11.000 euroren truke

JOHN OGILBY kartografoak Europako lehen errepide mapa nazionala argitaratu zuen 1675ean. Mapa liburuak 100 orrialde bikoitz ditu eta Ingalaterrako nahiz Galeseko errepide eta bidegurutze nagusiak biltzen ditu. Ogilbyk 42.500 kilometro egin zituen lana prestatzeko, baina azkenean 12.000 besterik ez zituen jaso mapa bilduman. *Britannia, Volume the First* izenburuko obra honek beste berrikuntza bat ere ekarri zion Ingalaterrako kartografiari: lehenengoz eskala uniforme erabili zen, hazbete bat miliako. Orain Cambridgeko Chelfins etxeak mapa bilduma enkantean saldu du 11.000 euroren truke, kopuru altua munduan oraindik ere liburuaren beste 100 bat ale daudela kontuan hartuta.

WWW.WORDPRESS.COM



ANTXOAREN ARRANTZALDIA

Bost urteko debekuaren ondoren antxoaren gerrarik ez

ARGAZKI PRESS / G.R.



Bost urteko debekualdiaren ondoren, “gerrak” saihesteko konpromisoa harturik, matxoaren 1ean hasiera emango zaio antxoaren arrantzaldiari Hego Euskal Herrian, Galizian, Kantabrian eta Bizkaiko Golkoan eta ekainaren 1ean Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan. Arrantzaldia hasteko baimena Europar Batasunak eman du, eta Espainiako eta Frantziako estatuetak antxoaren arrantzaren sektoreko ontziei 7.000 tonako muga ezarri die guztira.

DANIEL UDALAITZ

Bermeoko arrantzontzi batean, sarean harrapatutako antxoa deskargatzen.

IPARRALDEKO ZEIN HEGOALDEKO euskal arrantzaleek, kantabriarrek, asturiarrek eta frantsesek parte hartuko dute arrantzaldian. Arrantzaldia oso mugatua izango da, Europar Batasunak (EB) hala erabakita, urteko harrapaketak gehienez ere hauek izango baitira: 5.500 tona Espainiako estatuan eta 1.500 Frantziakoan. Antxoaren egoera oso larria zen Bizkaiko Golkoan, eta, horren ondorioz, ezinbestekoa izan da bost urtez arrantza debekatzea edo ete-

tea, joan den abenduan EBk espezie hori arrantzatzeko baimena eman zuen arte.

Espezie horrek Bizkaiko Golkoan zein egoera duen ikusita, arrantzaleku horretan jarduten duten agente batzuk ez datoz bat antxoaren debekualdia kentzeko erabakia-ekin, espeziearen iraunkortasuna lortzeko debekua beste urte betez luzatu beharko litzatekeela uste baitute. Hori adierazi dute Euskal Herriko zenbait instantziak, baita

Arrain eta Marisko Kontserben Fabrikatzaileen Elkarte Nazionalak (Anfaco) ere. Euskal kofradiek denbora zeramaten debekua kentzeko eskatuz, eta hala gertatu da azkenean. Kofradia horiek, ordea, ez zeuden ados Espainiako estatuak bere kuotako 100 tona Frantziako estatuari eskaini izanarekin. Hala ere, bi estatuen arteko akordioa lortu da azkenean, eta, horri esker, “antxoaren gerrarik” ez da izango.

33.000 tona behar dira espeziea iraunarazteko

ARGAZKI PRESS / R.B.

Antxoaren arrantzan aritzen den Hegoaldeko euskal sektorea honako portu hauetan kontzentratzen da: Bizkaian, Bermeon, Ondarroan eta Lekeition, eta, Gipuzkoan, Getarian eta Hondarribian. Sektoreak 55 ontzi ditu, eta 775 pertsonak lan egiten dute ontzi horietan. Horiez gain, 73 emakume saregile ere aritzen dira sareak konpontzen. Iparraldean ere badira arrantza mota horretan aritzen diren ontziak, baina kopuruak behera egin du azken urteetan. Euskal ontzietan gain, asturiarrak, galiziarrek eta kantabriarrak ere aritzen dira antxoaren arrantzan. Kantauri itsasertzeko ontziak, euskal ontziak barne, 200 inguru dira, eta guztira 2.000 langile aritzen dira ontzi horietan lanean.

Antxoaren arrantzaren bilakaera arrantzalekuen gehiegizko ustiaketak mugatu du. Gauzak horrela, 60ko hamarkadan 80.000 tona antxoa inguru arrantzatzen zituzten. 2000 urtean, harrapaketak 17.000 tonara jaitsi ziren. 2004an, harrapaketek 6.620 tonara egin zuten behera; 2005ean, 165 tona arrantzatu zituzten, eta, 2006an, 781 tona. Hain zuzen ere, antxoaren arrantzaren bilakaera negatiboak eragin zuen espezie hori arrantatzeko debekualdia eta geldialdia.

Debekualdiak iraun duen bitartean, Itsas eta Elikagaien Zentro Teknologikoko (Azti) eta EBko teknikoek espeziearen egoera aztertu dute aldian-aldian Bizkaiko golkoan. 2008ko udazkenean egindako "antxoa gazteen" azterketari esker, biomasaren indizea 2005ean debekual-



Baxurako arrantzaleak atsedenean.

dia dekretatu zenean baino %33 handiagoa zela ondorioztatu zen. Datu horiei esker, hurrengo urteko populazioaren bolumena zein izango den jakin dezakegu. Adituen ustetan, espeziea iraunarazteko kopuru egokia 33.000 tona antxoa izango litzateke. 2005ean, 21.000 tonatik beherakoa zen kopuru hori.

Kantauriar kostaldean antxoa debekatu izanaren ondorioz, espezieak Mediterraneoan zuen prezioak gora egin zuen, eta antxoa kilo 12 eta 15 euro artean saldu zen 2007an. Mediterraneoan antxoa hori saldu dute Hegoaldean debekualdian zehar.

Ez da antxoaren gerrarik izango

Arrantzaldiaren debekualdia amaitu izanak asko poztu ditu euskal arrantzaleak; arrantzaldia normaltasunez garatzen bada, beren egoera ekonomikoak hobera egingo baitu. Debekualdiak iraun duen bost urteetan, hegaluzearen eta berdelaren arrantzaldiei esker egin dute aurrera antxoaren arrantza-leek. Debekualdi garaiko eta normaltasun garaiko antxoaren arrantzaldiaren arteko desberdintasuna ikusteko, nahikoa da datu honi erreparatzea: arrantzaleen hitzetan, pertsonako 12.000 euro lor zitzaketen antxoaren kanpaina bakarrean, eta, arrantzalekuak itxiz geroztik, ezinbestekoa izan da langabezia 40 egun egotea kanpaina guztian 3.000 euro inguru kobratzeko.

Aurtengo arrantzaldian, aurreko kanpainetan Espainiako eta Frantziako estatuetako arrantzaleen artean ikusi ditugun "antxoaren gerrak" ekidingo dira. Urtarrilean

lortutako akordioaren bitartez, Frantziako estatuko arrantzaleek uko egin zieten Espainiako estatuak eskaintzen zizkien 100 tonei, eta itsasontzi frantziarrak ez dira ekainera arte itsasora aterako. Horren ordainetan, 15 metro baino gutxiago dituzten Frantziako itsasontziei bere kostaldetik gertu arrantzatzen utziko die Espainiako estatuak. Hori horrela, Espainiako estatuak 5.500 tona arrantza ditzake, eta Frantziakoak, 1.500 tona. Horren ondorioz, Espainiako estatuko inguraketa-ontziek —Euskal Herriko, Kantabriako, Asturiasko eta Galiziako 200 ontzi inguru— martxoaren 1ean hasi

eta maiatzaren 31n amaituko dute kostera. Frantziako estatuko ontziek, aldiz, ekainaren 1ean hasiko dute.

Kontserben industria

Kontserben euskal sektorea oso garrantzitsua da, eta oso kontzentratuta dago, batez ere Bermeon (12 enpresa), Ondarroan (5), Berriatuan (5) eta Mutrikun (7). Iparraldean ere baziren zenbait enpresa, baina gaur egun, oso gutxi gelditzen dira.

Sektore horrentzat ere oztopo dira antxoa arrantatzeko ezarritako mugak; kontuan izan produktu fresko gisara saltzeko erabiltzen dela 7.000 tona horietatik %25, eta egoera horrek ez ditu kontserben ekoizpenerako dauden beharrak asetzen. Hori dela eta, debekualdia amaitu arren, euskal kontserbagileek uste dute ezinbestekoa izango dela Mediterraneoan, Marokon, Kroazian eta Argentinan dituzten hornitzaileen-gana jotzea. ■

Arrantzalekuak itxiz geroztik, ezinbestekoa izan da langabezia 40 egun egotea kanpaina guztian 3.000 euro kobratzeko



Iñaki Zabaleta

«Akordioa ona da, biontzako txarra delako»

Bizkaiko Arrantza Kofradietako Federazioko presidente da Iñaki Zabaleta (Bermeo, 1945). Jadanik ez da itsasora ateratzen, baina bertatik bertara ezagutzen du sektoreak bizi duen egoera. Antxoaren debekua bertan behera geratu ondoren “itxaropena” nagusitu da.

URKO APAOLAZA

AITA ARRANTZALEA zuen, aitona ere bai, eta bera hamabi urterekin hasi zen arrantzan, anaiarekin batera. Bizitza osoa egin du itsasoan, hirurogei urterekin jubilatutako arte. Hezurretako minez zebilen, “penaz”, eta utzi egin zuen: “Arrantzaleok denok irabazten dugu berdin, eta ez baduzu behar den lana egiten, kalte egiten diezu besteei. Esan nuen: nahikoa da, urte asko dira, utzi eta kito”.

Baina herrian ez zaio itsaso gogorrik falta izan. Federazioan sartu zen presidente eta hor dabil duela hamabi urtez geroztik, bera da Bizkaiko arrantzaleen ahotsa. Gasolioaren gorakada, antxoaren bost urteko debekua, Alakranako bahiketa, hegala-laburraren kanpaina eskasa...

Arrantza Ministroen Europar Kontseiluak azkenean onartu du antxoaren

arrantzaldia martxoaren 1ean hastea. Zer presio egin dute Espainiako eta Frantziako estatuek?

Gai honetan Espainia eta Frantzia bakarrik edukitzen dituzte kontuan. Beste ministroek ez badute zerikusi handirik, ez dute presiorik egiten, horregatik akordio guztiak Espainia eta Frantziaren ingurukoak dira. Beraiek esaten dute ezetz, Arrantza Komisioa ibili zela *erre erre* ez ire-



“Arrantzalea da dagoen depredadorerik handiena, beti gaude nekazaritzatik ikasteko”.

kitzeko esanez, baina denok dakigu akordio politiko bat izan dela. Urriko informeak onak zirenez, ireki egin dute 7.000 tonako TAC [Urteko Harrapaketa Kopurua] batekin. Orain udaberrian ikusiko da zelan dagoen: txarto badago itxi, eta ondo badago segitu egingo genuke.

Beraz, oraindik badago arriskua kanpaina gabe geratzeko?

Arrantzaleok itxaropen handia dugu, pentsatu daiteke bokarta errekupeatu egingo dela. Lisboako Itunarekin, Kontseiluak Komisioaren esku utziko du erabakia, eta hor zientifikoei esango dute, biomasaren arabera, zer egin. Erabaki zientifikoa izango da, ez da egongo debaterik Kontseiluan, eta hori guretzako ona da.

Negoziaketa horretan Espainiak 100 tona gehiago utzi dizkio azkenean Frantziari. Hori kritikatu egin duzue.

Guk urte asko daramagu frantsesekin “borrokan”. Akordio hau ona da, biontzako txarra delako; biok amore eman behar, eta hori ona da.

Baina zer konpentsazio eman du Frantziak?

Ez dakigu. Espainiako ordezkariak esan digute Frantziak 200 tona gehiago eskatzen zituela, baina gu egon gara La Turballe eta Saint-Gilles-eko arrantzaleekin eta haiek esan digute

ez dutela gura kilo bat gehiago ere, akordioa ona dela. Eta gure gogoaren gainetik azkenean 100 tona gehiago eman dizkie... Zeren truke? Ez dakit. Beti eskatu dugu horrelako erabakiak hartzen diren foroetan arrantzaleen ordezkari bat egotea; lekukorik ez da egon.

Akordioak akordio, esan duzue “bai ala bai” aterako zaretela antxoa bila. Hain larria al da egoera?

Gure txalupentzat bai. Laguntzak egon dira, baina linealak, ez dira nahikoak. Antxoatan dabilzan txalupentzat galtze handia da, bost urte pasa dira eta ez dago arrainik. Ibili gara berdeletan eta masakratu egin dugu, txitxarroa ere bai, sardina... denak horretara badoaz, ba azkenean ez du balio.

2005eko eta aurreko urteetako kanpaina desastrosoen ondoren, zer irakasgai atera du arrantzaleak?

Arrantzalea da dagoen depredadorerik handiena. Beti gaude ikasteko, eta ikasi behar dugu nekazaritzatik. Itsasoan bi egon behar dira bizirik beste

“Ez dugu merkataritzaren mundua ezagutzen.

Errazena da esatea: ‘zeuek saldu’, baina gaitza da”

bat sortzeko; bi heren baino gehiago hiltzen baditugu sekatu egingo da, gatza besterik ez da egongo itsasoan. Eta bokartarekin ikusi dugun historiak kontzientziatu egin behar gaitu.

Anfacok (Espainiako kontserba enpresen elkarte) esan du beste urtebetez debekatu behar litzatekeela antxoa harrapatzea.

Anfaco ez da antxoatik bizi, inportantea da beretzat, baina ez du guk daukagun beharizanik. Guk itsasora joan beharra dugu, gure arriskuak onartuko ditugu, baina txarto irten da ere, antxoa ez da betiko desagertuko. Ez dut ondo topatzen gure bizian sartzea.

Dena den, 7.000 tonako TAC-a gutxi dela esan dute, eta kontserba enpresek antxoa inportatzen jarraituko dute. Nola eragingo du horrek?

Inportazioa libre da, gu hor ez gara sartzen. Nik ezin dut esan “ez ekarri handik eta nire arrainarekin bizi”, ez badiot nahikoa material ekartzen nola biziko da? Gure arraina bereziagoa izango da, ahalegina egin behar dugu marka batekin nabarmentzeko eta horretan gabilta, jendeak ziur jakin dezan antxoa nongoa den.

Atungorriarekin ez al da antxoarekin bezala pasako?

Ez. Atunarekin beti egon dira gora-beherak, Atlantikotik dator eta batzuetan ez da Kantabrikora sartzen. Aurten ez dugu asko harrapatu, baina ez bukatu delako.

Espezie batzuekiko menpekotasun handie duzue. Dibertsifikatzea ez al litzateke hobea izango?

Arrantzan ez da erraza, dena dago ebatsita: *cervoko* arrantza, arte xeheak, hondoko tretza... bakoitzak bere bidea hartu behar du. Ezin da esan “ni orain joango naiz legatzetara” eta gero beste arrain bat harrapatu. Madrilen modalitate aldaketa eskatu behar da eta hori oso kontrolatuta dago. Eta gainera, sarritan osteria ere berriz txalupetan aparejoak ipintzeko ez du ematen, diru asko da.

Arrantza sektorearen arazoetako bat errelebo falta da. Krisi ekonomikoak erakarri al du gazterik itsasontzietara?

“Indikora, Pazifikora eta angelu guztietara: txalupak horretarako daude”

ARGAZKI PRESS/ I.O.

Sabino Arana Sarietan oso presente egon zen Alakranaren kasua. Zuk, Bermeokoa izanik, gertutik jarraituko zenuen gertatutakoa, ezta?

Ikusten duzunean zure lagunak, zu bezalako arrantzaleak, preso daudela, ez Frantzian edo Portugalen, baizik eta Somalian, kontrolik ez dagoen lekuan... gauza estua izan da. Eta arrantzaleen familiek baka-
rrik ez uzteko eskatu zutenean herria zutitu egin zen, gizarte guztia zutitu zen, eta horrela askatu dituzte.

Arrantzontziak armaz babestu behar direla esaten da, baina hori behin-behineko soluzioa da. Ez al da sakoneko irtenbiderik hartu behar? Zergatik joan Ozenano Indikora arrantza egitera?

Askok ez daki zer den arrantzaleen bizmodua. Ikusten dituzte etxetik urrun, itsasoan, eguraldi txarrarekin... sentsibiltatea badago. Baina zergatik Indikora? Arraina han dagoelako. Naziorteko urak dira, 200 miliatara, eta japonesak, frantsesak eta errusiarrak ere aritzen dira han. Orain, itsasoan armak hartzea ez da biharko solu-



Alakranako arrantzaleen aldeko bilkura Bermeen.

zioa, beste bide bat topatu behar da. Baina hori ez dago gure esku, hori gobernuen esku dago. Indikora, Pazifikora eta angelu guztietara joango gara, txalupak horretarako daude.

Etorri dira, baina asko ez. Arazo bat dago: itsasorako pertsona bat behar baduzu, ezin duzu hartu herrian beharra ateratzeko zain dagoen bat; itsasora dator, erakusten diozu, ikasi egiten du, baina herrira doa ostera... ez da batere erraza. Hala ere, momentu honetan ez dago jende beharrik, daudenak konpontzen dira.

Azken hamarkadotan arrainaren prezioa izoztu egin da lonjatan. Horri aurre egiteko zuzeneko salmentarekin saiatu dira zenbait lekutan. Horrelako bideak hartu beharko lirateke?

Paperak ideia guztiak soportatzen ditu, baina gaitza da. Mila urtean ez

gara kapaz izan hori egiteko, merkataritzaren mundua ez dugu ezagutzen eta *lobby* asko dago. Arrantzaleak lehenengo egin behar duena da arraina harrapatu, eta gero saldu... Nork egin behar du gestioa? Mediterraneoan badaude hori egin duten batzuk, baina ez dira kopuru handiak; kontuan eduki atunetan hiru hilabetetan milaka tona harrapatzen direla, asko da kontrolatzeko. Errazena da esatea “zeuek saldu”, baina gaitza da.

Duela gutxi Sabino Arana Saria eman dizuete arrantzaleoi zuen lanaren errekonoizimendu gisara. Uste duzu gizar-

teak ulertzen eta onartzen duela arrantzalearen bizimodua?

Nik uste dut baietz. Lehen sektorea gara eta nahita nahiez gaude herri honen sustraiei lotuak; hemengo herriek ondasuna eta aberastasuna itsasotik lortu dugu. Behar izan dugunean gizartea beti izan dugu hor, eta alderantziz ere bai, *txapapotearekin* adibidez, edo Bermeoko portua apurtuta egon zenean, txalupak lotu eta hor aritu ginen herria garbitzen. Pentsatzen dut jendeak hori apreziazten duela. ■

www.argaia.com/multimedia
helbidean, elkarrizketaren bideoa ikusgai.

TEUSA

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 - Fax: 943 401511
teusa@teusa.com - www.teusa.com



Hogeita hamar hizkuntza abaraska zurian

Ipar Baionako bizilagunentzat munduko hainbat kulturatako hitzunezko elkarbizitza da eguneroko ogia. Berrogei urte bete ditu ZUP eraikinak. Han euskara entzuten da hogeita hamar hizkuntza baino gehiagorekin batera.

KRISTINA ENCINAR

Argazkia: Gaizka Iroz

EZ DA MARCEL BREUER arkitekto hungariarraren obrarik eza-gunena eta ez da Baionako turismo gidetan aipatzen, baina XX. mendeko arkitekturaren inbentarioan sartuko da. Ipar Baiona aldean kokatzen den ZUP, *La cité* edo *résidence Breuer*, kolore zuriko zazpi eraikinez osaturik dagoen talde arkitektonikoa, 60ko hamarkadaren amaieran eraiki zen. Hastapenean, bertako populazioa zen nagusi, orain bizilagunen ia gehiengoa etorkinak eta etorkinen ondorengoak dira. Airetik, Gurutze Saindua auzoan sigi-sagan doan hormigoizko suge geldo, eta lurretik, erle gogotsuen abaraska dirudien etxe-multzo. 8.000 baionar bizi dira han.

2009a Marcel Breueren urtea izendatu zuen Baionak, ZUP eraikina hiriko ondasun gisa sailkatzeko asmoz, eta artista omentzeko antolatu zituen egun bereziak, bere lanaren ibilbidearen erakusketak eta jarduera asko. Ez zaie ekitaldiok polemikarik falta, ordea.

Iazko ospakizunak errealtatetik urrun direla pentsatzen dute bizilagunek, badiarelako larriagoak diren arazoak. Izan ere, *Zone d'Urbanisation Prioritaire* sortu zenetik ez da etxebizitzetan berritze lanik antolatu, gainera, azken hogeitaz urteotan ugalduta bizilagunen kexak, bere-



Ipar Baionako eraikin zuriok 1960ko hamarkada bukaeran jaso ziren. Auzoan 8.000 lagun bizi dira. Argazkian, urtero antolatzen den Baiona Festibalean kontzertua entzuten.

ziki kaleko segurtasun falta salatuz. Kontsultatu dugun gehiengoaren ustez, fama txar horretan beldurrak eta auzoa ez ezagutzeak zerikusi handia du.

Kulturen arteko harremanen lekuko dira aurki altxatuko duten mesquita eta hiru erlijio nagusietako (kristaua, judua eta musulmana) ordezkariak dituzten hileroko batzarrrak. Haien hitzetan, elkarren artean ezaguturik, auzoko gorabeherak konfiantza eta segurtasun sendoa-

goz eraman daitezke, dioten bezala, ezagutza baita beldurraren arerio. Amankomunezko espiritualtasunak ditu beren ordezkari lanak gidatzen, eta horri heltzen diote ZUParen bakea ziurtatuz.

Espiritualki batuta ageri diren bezala, kultura eta hizkuntzan ere batera aritzen dira Ipar Baionan Baionako Festibalaren eskutik. Duela zazpi urte kultura arloan sortutako finantza-arazoak zirela-eta, bertako bizilagun zenbaitek –horien


Ipar Baionako familietako hizkuntzak

Ikasleek etxean entzundako eta erabilitako hizkuntzak

Alemana	Chti	Malgaxea
Alsaziera	Kosovarrera	Erromantxera
Ingelesa	Kreolera	Okzitaniera
Arabiera	Djoula	Portugesa
Armeniera	Gaztelania	Errusiera
Euskara	Frantsesa	Thailandiera
Berberea	Gabonera	Turkiera
Birmaniera	Italiera	Sri lankera
Bosniera	Kurdia	Vietnamera
Brasiliera	Laosera	Wolofera
Bretoiera	LFS	

Oharra: Ikasleek esanda bezala daude jarrita hizkuntzen izenak.

Familia elebarrak eta eleanitzak



Oharra: Ipar Baionako Lehen Hezkuntzako hamar eskoletan eta bi kolegioetan 2005ean egindako inkesta da. Ikasleei galdetu zieten zein hizkuntza hitz egiten ziren etxean.

artean euskaldunak— ZUPeko auzokoei hitza ematea erabaki zuten, eurek antola zitzaten jai egun batzuk elkarren kultura eta aisiarako ekitaldi batzuk gozatzeko parada ukan zezaten. Horrela sortu zuten Baiona Festibala, zeinak Ipar Baionako kulturen arteko gizarte harremanak estuki ehuntzea helburutzat hartuta, udazkenero belaunaldien arteko kultura aniztasuneko ekitaldien inguruko programa betetzen duen. Zazpi edizio horietako ebaluazioa egiten dutenean, Festibalaren antolatzaileek diote beren helburuak oraindik erabat eskuratu ez dituzten arren, eguneroko bizitzan bai nabaritzen dituztela auzoko kulturen eta belaunaldien arteko errespetuzko keinuak, sentipen positibokiak badituztela Festibalaren eraginarekin. Baionako Herriko Etxeak kultura antolaketa aniztasun eskas zegoela ikusirik, Festibalaren leloa beti izan da bertakoei bertakoentzat eginda izatea, eta bazkarietan 300 lagun inguru biltzen da jaialdiaren karirak.

2005ean ZUP auzoko eskoletara doazen haurren artean egindako Baiona Festibalak eskaturiko inkestaren emaitzetan erreparatuz, edota ZUPetik itzuliño bat eginez, ikusiko dugu Babelgo dorrea auzo bilakatu zaigula. Izan ere, 35 hizkuntza

baino gehiago aurkitu dira elkarbizitzan. Geografikoki badira arabiarak gehiengoaren diren guneak edota portugesa nagusi den ikastetxeren bat. Inkesta horren arabera, hauek dira gehien hitz egiten diren hizkuntzak, erabilera portzentajearen arabera zerrendatuta: frantsesa, euskara, gaztelania, portugesa eta arabiera. Ondoren, baina oso urrun erabilera portzentajeetan, okzitaniera edota kreolera bezalako hizkuntzak zerrendatzen dira. Fami-

Hauek dira gehien hitz egiten diren hizkuntzak, erabilera portzentajearen arabera zerrendatuta: frantsesa, euskara, gaztelania, portugesa eta arabiera

lian erabilitako hizkuntza nagusia frantsesa da, baina aitona-amonek gurasoek baino gutxiago erabiltzen dute, azken hamarkadotako Frantziako hizkuntza politikaren eraginagatik ziurrenera. ZUPeko Oihana ikastolan dauden haur guztiak elebidunak dira eta bi hizkuntzak (euskara eta frantsesa) erabiltzen dituzte eskoletan. Hala ere, frantsesta da kasu horietan nagusi, baina ez


da euskararen erabileratik luze aldentzen. Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak familieren barnean, hauen ostean aitona-amonek, amek eta azkenik aitek.

Euskararen alde positibo horri kontrajarria, aipatzekoa da inkesta horren arabera, hiztun eleaniztun gehiago daudela helduen artean baina elebarraren gehiengo haurrak direla. Frantsesaren zentralizazioaren seinale izan daitekeena elkarriketatuen iritziak. Hala eta guztiz ere, lekuko batzuek esan digutenaren arabera, ZUPen bizitzeari esker, hobeto atxiki ahal dute haien hurrek etxeko hizkuntza Baionako erdiguneko karriketan baino. Hau da, hurrek frantsesa bere tokian ikasten dute, komunikatzeko eta gizartearen nagusi den bizimoduan ibiltzen ikasteko, baina aldi berean, estuago identifikatzen dute etxeko hizkuntza eta etxeko kultura, eta gehiagotan praktikatu eta bizi ahal dituzte beren jatorriaren ezaugarriak. Berdin zaie orain modan jarri badute *Cité Breuer* deitza betidanik *La ZUP* izan dena, edota ez badituzte turistak inguraziko, izan ere, hamaika mundutan murgiltzeko zortea dute bizilagun hauek goizeko merkatuko erosketak egiteko ateraldian. ■

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



UDAL EUSKALTEGIA
Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Tel.: 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Euskalerria Irratiari arrazoia eman diote



HELEGITEA aurkeztua zuen Euskalerria Irratiak, lizentziarik gabe utzi baitzuten banaketan. Nafarroako Unibertsitateko irratia (Opus Deirenak) eta Net 21 irratia lortu

zituzten irradi lizentziak. Orain Nafarroako Justizia Auzitegiko epaileak baliorik gabe utzi du 2006ko lizentzia banaketa. Horrek ez du esan nahi Euskalerria Irratiari baimena emango diotenik. Mikel Bujanda irratiko zuzendariak esan zuen, Euskadi Irratian egindako elkarrizketan, gustura zeudela epaiarekin, baina oraingo hau “meta bolantea” baino ez dela.

Euskara teknikaria Trebiñun

ARABAKO FORU ALDUNDIA ari da poliki-poliki euskara teknikarien sarea osatzen. Azkeneko saioa

Burgosko udalerria den Trebiñun egin du. Udaberritik aurrera teknikaria izango dute.

Zientzia Udalekuak Elhuyarren eskutik

ELHUYAR FUNDAZIOAK hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin eta hiru proiektu hartu dituzte kon-tuan. Batetik, 12-16 urte arteko gazteentzat Zientzia Udalekuak antolatuko dituzte aurtengo udan. Bestetik, 120.000 euroko diru-laguntza jasoko du Elhuyar Fundazioak Kultura Zientifikoaren Labo-rategia antolatzeko. Azkenik, *Teknopolis* telebista saioa urte osoan eskaintzea adostu dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Lópezen “luzimendua” Europar Batasunean

Joan den astean, Donostia, Europar Batasuneko Berrikuntza eta Lehiakortasun Ministroen Kontseilu informalaren bilgune izan da. Donostiako Aitorpena atera da bertatik. EAEko lehendakari Patxi Lópezen arabera “aukera historikoa izan da europarren interesa erakartzeko eta Euskadi luzitzeko berrikuntzan, energia berriztagarrietan, auto elektrikoan, baita sukaldaritzako berrikuntzan ere”. Lópezek ondo daki “Euskadi”, eta are gutxiago Euskal Herria, ez dela egon europar Ministroen Kontseiluan. “Euskadik” eta Lópezen Gobernuak, hala nola Donostiako alkatetzak, egin duten gauza bakarra izan da europar ministroen afaria eta beste ekitaldi batzuk gure poltsikoetatik ordaintzea.

Donostiako Europar Ministroen Kontseiluan nabaritu da, Lópezen arabera, “sukaldaritzako berrikuntza”; izan ere, oso ondo zerbitzatu zituzten euskal sukaldari ezagunenek. Beste guztiaz, ezer ere ez. Joan den igandeko manifestariak salatu zuten bezala, Europar Kontseiluan euskaldunak ez izateak beste behin ere erakutsi du Europar Batasunak ukatu egiten dituela errealitate plurinazionalak eta estaturik gabeko nazioak. Modu berean, erakutsi da autodeterminazio eskubidearen aitortza eta aplikazioaren aldarrikapenetatik urrun segitzen duela erakunde horrek. Donostian bildutako Kontseiluak erakutsi du, berriz ere, Europar Batasunak multinazionalen interesen eta bertako kide diren estatuetako eliteen zerbitzura dagoela. Euskaldunoi onartzen diguten gauza bakarra da “sukaldaritzako berrikuntza luzitzea”. Eta, zergadun denon diruarekin —ez Lópezen nomina milioi-dunarekin— ordaintzea ministroen gustu gastronomikoak. Hori da euskaldunak Europar Batasunean duten presentzia. Hori bai luzimendua, López jauna!

Juan Mari Arregi

BAHEA

Paula Kasaresek gipuzkoaeuskara.net esanak: “Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak *Administrazioan euskaraz ere bai* kanpaina bertan behera utzi du. Nafarroako Euskararen Institutuak, Euskarabideak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan euskararekiko sentiberatasuna eta aldeko jarrerak sustatzeko kanpaina aurreikusi zuen 2009ko egitasmoen artean.

Atentzioa ematen du egoera horretan, administrazioan euskara sustatzeko kanpaina egiteko material osoa prest egonda —beraz, diru publikoa gastatuta—, materiala banatzea debekatu izanak. Bestalde, ikusita zertan diren hizkuntza-politika eta hizkuntza-eskubideak Nafarroako administrazioan, agerikoa da halako sentiberatze kanpainak egiteko dagoen premia.

Euskararen erabilera bultzatzeko materiala banatzeko debeku hori ez da bakarra izan. Antzekoa gertatu da ikasleen artean banatzekoa zen euskarazko eskola-agendekin. Milaka ale geratu dira Hezkuntza Departamentuko sotoetan. Martxa honetan, Nafarroako Gobernuari euskarazko material zentsuratua gordetzeko bilategia txiki geratuko zaio”.

Pentsioak: neoliberalismoaren gezurrak

ERRETIRO ADINA atzeratzeko proposamena, funtsean, datu demografiko batean oinarritzen da, hau da, gazte eta adineko pertsonen proportzio aldaketa: demografiak behera egin du, beraz, gero eta urriagoa izango den gazte taldeak gero eta ugariagoa den adineko taldearen pentsioak mantendu beharko ditu, eta pentsio sistema hori bideraezina da.

Zientzia demografikoaren aterkipean eskainita, argudioak erantzun ezina dirudi, hala da eta listo. Baina kontua da ez pentsioen gaia, ezta gizarte ereduak ere ez direla demografia edo bestelako zientzia "erantzun ezinen" menpe, eta zientziaren batek zerbait esan badezake gai horiei buruz, hori zientzia politikoa dela; hau da, ez dagoela determinismorik eta kontu horiek gai politikoak direla, eta erabaki politikoaren menpe direla. Neoliberalismoak aurkezten duen egia, azken finean, klase aberatsenari mesede egiten dion egia da, berau bere burua sozialistatzat jotzen duen gobernu batek aurkezten badu ere.

Argudio demografikoa. Gaia ez da "gazte gutxi zahar asko, beraz bideraezina". Gaia da ea zenbat jende ari den lanean eta, beraz, gizarte segurantzara zenbat diru sartzen den. Nola aurkeztu liteke arazo hau gai demografiko gisa, gaur egun Espainian langabezi tasa ia %19koa denean edota emakumeen %54 baino ez (Suedian %87) dagoenean lan merkatuan? Langabetu horiek lan eginez gero eta emakume langileen ehunkoa Suediakoa balitz, Espainian 10 milioi langile gehiago izango lirake, eta ez legoke pentsio arazorik.

Produktibitatearen hazkundera. Pentsioena demografiarekin baino ez da lotzen, urte batzuetara emango den ustezko langile kopuruaren jaitiera giltzarri dela aipatuz, baina

aipatu gabe denbora horretan Barne Produktu Gordina (BPG) ere asko haziko dela. Ez da aipatzen, halaber, teknologiaren garapenak, lan-indarra ere etengabe ordezkatzeko duela: hau da, pertsona gutxiago lanean, baina produkzio handiagoa. Hona adibide bat: irudika dezagun BPGaren %1,5eko hazkundera dagoela batez beste 2060. urtera arte. Modu horre-

Azken 30 urteetan ere produkzioa asko handitu baita, baina aberastasuna ez da ondo banatu, lan errentak txikituz eta kapital errentak handituz. Gizarte segurantzaren ondo elikatzeak, ondo banatzea funtsezkoa da

tan, 2060an BPGa 2007an baino 2,23 handiagoa litzateke. Horrek esan nahi du 2007ko BPGaren balorea 100 bada, adibidez, 2060an 223 litzatekeela. 2007an pentsioetara BPGaren 8,4 bideratu zen, beraz, eta ez pentsionisten multzora 91,6. Irudika dezagun orain 2060an 223ren %15,1 bideratzen dela pentsioetara, hau da, 33 pentsionistentzat eta 192 ez pentsionistentzat (2007ko 91,6 haien bikoitza baino gehiago). Jakina, hori gero ondo banatu behar da, azken 30 urteetan ere produkzioa asko handitu baita, baina aberastasuna ez da ondo banatu, lan errentak txikituz eta kapital errentak handituz. Gizarte segurantzaren ondo elikatzeak, ondo banatzea funtsezkoa da.

Argudio hauek Vicenç Navarro Kataluniako ekonomialariaren webgunetik hartu ditut. Hauek eta beste asko ere jorratzen ditu bere gune

horretan (<http://www.vnavarro.org>), bai pentsioei buruz eta baita beste gai askoren inguruan ere. Ikuspegi neoliberalak eraikitzen dituen egi oso horiek txikitzen ditu bata bestearen atzetik, eta oso modu pedagogikoan gainera.

EUSKO LEGEBILTZARRAK Egunkaria auziko auzipetuei elkartasuna erakustea eskatzen zuen, besteak beste, Aralarren eskaerak. PSE-EEK, eskaera hori aldatu eta, Egunkaria auzia behin-betiko itxi dadin eskatu du, baina itxi fiskalak eskatzen duen norabidean, hau da, absolutzioarekin. PSEk uste badu Egunkaria auziko auzipetuak errugabeak direla, gaitza da ulertzea zergatik ukatu elkartasuna eskubideen ikuspegitik Estatuak horren gaizki tratatu dituen pertsonen. Hauek ere biktimak dira, baina Estatuarenak. Bistan da, eta gaur egun inoiz baino gehiago, biktima maila desberdinak direla.

Edozein eratan, oso berandu badator ere, positiboki baloratu behar da PSE-EEK bloke gisa Egunkaria auzikoak errugabetzat jotzea eta haien zatitza absolutzioa eskatzea. Kasu honek, dena den, berriz ere argi adierazten du Eusko Jaurlaritzak PPrekiko duen menpekotasuna, batez ere zenbait gaitan. Duela gutxi Blanca Urgell kultura sailburuak agiria ateratu zuen, adieraziz, bera ere auzia behin-betiko ixtearen aldekoa zela, baina aditzera eman gabe zein zentzutan eta errugabetzat jotzen dituela azpimarratu barik. Argi da, PSE-EEK talde gisa eska dezake Egunkariako auzipetuen absolutzioa, baina herritarren zaintzaz eta babesaz arduratu behar duen Eusko Jaurlaritzak ez, ezta gobernu horretan teoriarik kultur eragileekiko babesa erakutsi beharko lukeen eremutik ere.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

ClAk gudu berriak eulitzarretatik tiroka irabazi nahi ditu

Eskifaia-rik gabeko hegazkin militarrek bitxikeria direla uste duzu? Jakin ezazu aurten AEBetako armadak jenderik gabeko hegazkinen lur-eko gidari gehiago heziko duela ohiko hegazkinetarako pilotu baino. Eta Pakistaneko gerra ezkutua arma berri horrekin egiten duela ClAk.

ESKIFAIA-RIK GABEKO HEGAZKINAK izaki, ingelesez *Unmanned Aerial Vehicle* (UAV) deitzen dira ofizialki, jenderik gabeko aireko beribilak, baina jendeak *Drone* bataiatu ditu aspaldi. *Drone* erlamandoa da, erleen artean burrunba gehien egiten duena, baina natura euskaraz bizi duenak seguru-rik nahiagoko luke hegazkin hori “erletzar” edo “eulimando” bataiatu, edo are “kakalar-do”, kanpoan zabiltzala oharkabe-rik gaineratzen zaizun xomor-ko hegala-ri burrunbariaren irudia atxikitze-ko.

*Drone*ek ez dute, ordea, bromarik eragiten militarrek usatzen dituzten leku zorigaitzokoetan. Ez dira iparramerikarrak UAV horien erabiltzaile bakarrak. Adibidez, duela justu urte bete Gazan Israelek *drone* batek airetik errundako misilarekin 48 jende hil zituen. Europako potentziek ere badituzte beren UAVak, baina merkatuan nagusi Israel eta batik bat AEBak dira. Hala segi nahi dute.

Otsailaren 5ean Tony Capaccio kazetariak *Business Week* astekarian publikatu eta *Common Dreams* gune aurrerazaleak zabaldu-eko albiste-rik dakigu AEBetako militarrek zer nolako inbertsioak planifikatu dituzten hegazkinen alorrean. *Pentagon to Increase Stock of High-Altitude Drones* kronika laburra aberatsa da xehetasunetan. Horri esker dakigu

gaur iparramerikarrek 6.819 UAV dauzkatela, horietatik 220 direlarik altuera oso handian, iraupen luzez, inguru osoa behatzeko ahalmenez eta berehala erasotzeko gaitasun- ez lan egiteko prestatuak. 2020rako belaunaldi berri-ko 800 *drone*ren jabe izan nahi dute militar yan-ki-ek.

Honetan guztian zientzia-fikzio-rik ez da. Orain- tx- bertan AEBetako armadak 39 hegazkin dauzka egu- naren 24 orduetan Irak eta Afganis- tango eremuak airetik arakatzen. Urtea bukatze- rako 50 izatea nahi du eta 2013rako 65. Hegazkinotan 2011ko aurrekontuetatik 22.000 milioi dolar zahutuko ditu eta inbertsioa urtero %1 handituz 2020rako 29.000 milioi aurreikusten.

Armada- z gain CIA da hegazkinen beste erabiltzaile- a. Mendebalde- ko potentziek egun argitan aitortu duten moduan Iraken eta Afganistanen *kakalar- do* armatuok darabiltzatela, ofizialki gerra ez dagoen Pakistanen ausarki usatzen ditu ClAk talibanak babesten omen diren eskualdeetan.

Gaitz da Pakistanen gertatzen ari dena zehaztasun- ez azagutzea. Hango hirietan jazotzen diren aten- tatu hilgarrien irudiak ikusi ohi dira telebistetan, baina tribu- etako lege zaharren arabera bizi diren eskualde- ek garretan dauzkan gerra ezku- tuaz informazioa urri dator eta iru- diak are urriago.

Air-Attack guneko irudian, MQ-9 Reaper jenderik gabeko hegazkina. General Atomics konpainiak ekoizten du aurretik famatua egin zen Predator *drone*aren ordez. 10.5 milioi dolar kostatzen da, 15 kilometroko altueratik egin dezake lan eta 42 orduko autonomia dauka hegalean eramanez 500 kilo leherkari, izan laserrez gidatutako bonbak edo misilak, airetik airerakoak bezala airetik lurrerakoak. Interneten ageri dira AEBetako armadaren eulitzarron hamaika xehetasun, baina ClAk darabiltzanen inguru-koak askoz urriagoak dira. Munduko armada indartsuetako militarrek gero eta usuago bidaltzen dituzte UAVak gudu- etara: norbera gutxiago arriskatu- z etsaiei kalte handiagoak eragiten dizkietelako. Balizko etsaiei... eta inguruan harapatutako gainerako herritarrei.

Barak Obamak ez zuen hasi Pakis- tango gerra ezkutua, baina artean hautagai zelarik oniritzia eman zion eta aginte- a hartuz geroztik sendotu egin du ClAk han markatutako estrategia. Alegia: AEBak ez daude gerran Pakistanen, bertako gober- nuari –bonba atomikoaren jabe denari, ez da ahaztu behar– babesa ematen baizik, ez da aitortzen arma- da estatubatu- arra Afganistaneko mugetan guduka dabilenik, baina ezkutuka berak kudeatzen du borroka osoa.

Estrategia honetan UAV eulitza- rrak dira arma inportanteenetako- a, ez bakarrik informazioa biltzeko baizik eta tropa amerikarrak arris- kuan jarri gabe talibanei su egiteko ere bai.

Pakistan, euli armatuen bazka

Bakearen Nobel saria irabazi berria duen Barak Obama presidentea Pakistanen zertan ari den iazko api- rilean salatu zuen Steve Weissman- ek *Truth Out* hedabide elektroniko- an, *Obama Dances With Drones* (Obama erlamandoekin dantzan) izenburua zeraman kronikan.

Weissmanek azaldu du nola Barak Obamak eta Pakistango presidente berri Asif Ali Zardari aurrera dara- maten lehenagotik George Bush- ek eta Pervez Musharrafek hitzartuta- ko bidea, alegia, AEBek atea zabalik



Laden *dronez* edo komando baten erasoz hiltzeak Obamari ohore handia ekarriko lioke etxean. Baina garestiegi aterako litzateke baldin eta trukean bonba nuklearra daukan Pakistan jihadistak musulmanen esku eroriko balitz”.

Barruan inor gabe hegaz egiten duten eta eremu zabalak airetik behatzeko adina misilez erasotzeko balio duten UAV horiez informazio baliotsuak Philippe Leymariek eman izan ditu *Le Monde Diplomatique*ren gunean daukan *Defense en Ligne* (Defentsaren Haria, euskaratu genezake libreki) blogean. Leymariek idatzi du CIAko buruzagien ustez *droneok* direla Al Kaedaren kontrako arma mirakuluzkoa.

Erasotzailearentzako hegazkinok munduko abantaila guztiak dituzte: erraz iristen dira etsaiaren ahoko zuloraino, kirurgia lana lasai egin dezakete eta soldadurik galtzeko arriskurik ez. Ortzian oso goitik –inoiz 15.000 metrotatik!– arakatzan dute gudalekua. Piloturik ez dutenez, hegaldian jarraitzeko mugarik ez dute, ez nekerik, ez preso erortzeko kezkarik. Buruzagitzak askoz hurbilagotik kontrolatzen du edozein erabaki. Aldiz, gainean kontrola sentitzen duten etsaiak bezala herritarrak beldurtzen ditu.

Ordainetan, herritarren artean erasotzailearekiko gorrotoa areagotzen dute. Erlamandook hiltzen duten pertsona zibil bakoitzeko, familia eta herri osoak haserrarazten dituzte betiko. Baina gorrotoa urrunetik usaintzen ez denez... ■

daukatela talibanez Pakistandik nahi bezala erasotzeko.

Obamak hauteskunde kanpainan abisatua zuen Al Kaedako buruzagien bila joko zutela amerikarrek Pakistanen bertako agintarien oniritziarekin edo hauen gogoz kontra. Izan zen horretaz polemika bat baino gehiago, baina agintera iritsitakoan urrats berriak eman ditu Obamak norabide berean.

Posible ote da Nobel Saria hartu duen presidente batek gerra batean –ofizialki aitortu bakoa izanik gainera– biktima zibilak ugaritzen dituen arma lehenestea? Bai, antza. Izan ere, Pakistango mendietan CIAren piloturik gabeko UAV hegazkinon erasoetan ehunka herritar hil dira, emakume, ume eta zahar

asko tartean. Behin edo behin iritsi da hegazkinok eztei-festa lehertu dutela, hamarka hilez.

Zardari presidentek publikoan salatu izan ditu CIAren halako erasoak, baina denek dakite aho txikiarekin ontzat ematen dituela. Hala da tratua. Baina ondorio onik ekarriko al du?

Iaz idatzi zuen Weissmanek: “Obamak Al Qaeda menderatu nahi du garaipen militarrez, aldi berean Zardari exijituz Pakistango talibanez eta gainerako islamistei erakustaldi militarra egin diezaion, baina beste hainbat kontutan azeria den gure presidentea ez da ohartzen urrundik gidatutako *Predator* hegazkinok Pakistan barruan gerra zibilaren etorrera ari direla elikatzen. Bin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Gardine Ubeda Goikoetxea

Anti-adina

M

ichelle Pfeiffer-ek “50 urte bete ditudanez geroztik, inoiz baino hobeto sentitzen naiz” dio *Mujer boy* aldizkarian. Beltzez jantzita, sofa gorri batean eserita ageri da, zeharka begira, postura sentsualean. Zirujauk eta Photoshop espezialistak berregindako gorputz perfektua aurpegiratzen digu, adin horretan lurtarren artean existitzen ez den larruazal orbaingabea, zetaren leuntasuna. Egin berri duen filma ikusteko amua baino, kosmetika industriaren ikur bilakatzen da bere irudia. Sharon Stone eta bere tanke-rakoena bezala. “Gaur, hogeitau urte nitue-nean baino ederrago!” dio *Basic Instinct*eko ilehoriak, asteburuetako beste aldizkari-eranskin horietako batean. One Essential, zelulen birsortzaile trinkoa. Adinari aurre egiteko oinarritzko lehen keinua, 70 euro-tik gorako pototan. Kaka zaharra.

Puntako teknologiarik hiltzen dio latsa-gabeki gaurko kosmetikak, etengabeko berrikuntzaz armatuta egiten du karga, adinean gora doan emakumeari, guri, niri, zuri, tiro egiteko. Pro-xylane, kolagenoa edo azido hialuronikoa bezalako hitzak jariatzen dizkigute, soluzio abangoardistak eta super serumak, betegarri biologikoak, zimurren konponketa eta elastizitatearen berregituratzea bezalako kontzeptuak zaparradan botatzen. Bai. Horixe baitira zimurrak, kosta ala kosta zuzendu beharreko akatsak. Bihoakie oharra, denborak utzitako arrastoak direla uste dutenei. Eta horixe bera baitira zimurtuak, izaki hondatuak, konponketa premia dutenak. Bihoakie oharra, krisiak krisi milaka milioi euroko dirutzak mugitzen dituen industrian justukoa besterik uzten ez dutenei.

Etxe ondoko farmaziako erakusleihoa osorik betetzen zuen iragarki erasokorrak DNA bidezko atzerabidea agintzen zuen krema, *Age Killer* nabarmentzen zuela. Hori bai terrorismoa.

TEKNOLOGIA baina batez ere berrikuntza dira egungo hitz ponposoak. Nonahi eta noiznahi erabilia, halako usain arnegarria barreiatzen dute. Espainiako ministrari Cristina Garmendia sansebastiandu zenetik, bazterrotan uxatu ezinik dabilena bezalakoxea.



DANI BLANCO


Serum kosmetikoa da Berrikuntza baskoen presidentearantz, eta Europako agintariak Zapateroren alde limurtzeko apologia, Garmendia anderearentzat. Profesore handien antzean heldu zitzaigun poliziek setiatutako hirira, arrotz eta harro, bere gisako ministrariak bizkartzain zituela, hemengo enpresei, zentro teknologikoei, baita Patxi Lopezi ere, lezioak ematera. Eta zer erakutsi behar ote dio Espainiak Euskal Autonomia Erkidegoari, batak berrikuntzara esleitzen duen kopurua bestearena baino dezente txikiagoa denean?

Itxura zaintzeko produktu bat gehiago ipini diguzue mahai gainean. Gezurrez eta zikinez kamuflatutako likits erdipurdiko eta garestia, laborategi independenteeek testatua omen dena, hipoalergenikoa. Eta ezer ez duenari bezala saldu diguzue, aho bete hortz eta espantuka, ezertarako lotzen ez duen agiri batek liluratuko gaituzuen segurtasunez. Apaltasun pixka bat, mesedez.

Serum kosmetikoa da Berrikuntza baskoen presidentearantz, eta Europako agintariak Zapateroren alde limurtzeko apologia, Garmendia anderearentzat. Profesore handien antzean heldu zitzaigun poliziek setiatutako hirira, arrotz eta harro, bere gisako ministrariak bizkartzain zituela, hemengo enpresei, zentro teknologikoei, baita Patxi Lopezi ere, lezioak ematera

Artean ikusi gabekoa edota gizarteari aurrepausoa ekarriko diona baldin bada Berrikuntza, goi bilera triste horren karira, afaria prestatzera heldutako sukaldarietatik bakar batek, Hilario Arbelaitzek, eraman beharko luke halakorik egin izanaren saria. ETB2n –gaztenaliazko Teleberrin–, ministroei platerean jarri behar zizkieten plater ikusgarrien azalpenak euskara hutsean emateagatik. Berrikuntza euskaraz ere egiten dela ozen agertzeagatik. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Ellauri Hotela

Asteburu pasa
2 lagunentzat

Zeanuri BIZKAIA
www.ellaurihotela.com

1



Laia, Etxe, The Uski's eta Des-kontrol

2 CD sorta

Baga Biga
www.baga-biga.com

2




Artez euskara zerbitzua

4
urteagenda

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

3



Artez euskara zerbitzua

5
egutegi

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

LAIA ERRETEGIA

- Eneko Bidegain Aire (Hendaia)

INGURU ABENTURA

- Jesus Mari Kerejeta Aldalur (Urretxu)
- Kerman Rekondo Arzallus (Usurbil)
- Sabin Argarate Unzilla (Elgoibar)

MIKEL URDANGARIN

- Miren Abalde Alzuart (Donostia)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
- Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Gorka Moreno Marquez (Zornotza)
- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)
- Ramon Iriondo Bergara (Hernani)
- Joseba Ituarte Arkotxa (Ondarroa)

KIROLAZ BADAKIT

- Alex Mungia Idarreta (Donostia)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Bilbo)


PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Historiara igaroko den urtea

GARAren URTEKARIA



- 2009ko laburpen kronologikoa, egunez egunekoa.
- Gertakari adierazgarrienen ehunka argazki.
- Kiroletako emaitza eta sailkapen guztiak.
- Estatistika datuak eta hauteskundeetako emaitzak.
- Eta, gainera, urteko bost gai nagusiak sakon landuta:

Barack Obama
«Alakrana»-ren bahiketa
Ekonomia, shock egoeran
Hauteskunde autonomiko eta europarrak
Ezker abertzalearen eztabalda

Otsailaren 26tik aurrera zure kioskoan

GARA + **9,95 euro** soilik